

# Goienkaria



JOSE MARI ETXANIZ /9

"Herritarrek ematen digute kartzelari aurre egiteko indarra"

"Nire etorkizunaz epe motzera ez dut pentsatzen, bertigoa sorrarazten dit"

EGUBAKOITZA • 2001eko otsailaren 23a • II. urtea • 11. zenbakia • DOAN BANATZEKO

## Goienka 2a

Aratusteak: mozorroa janzteko ordua

## HERRIZ HERRI

Eskoriatzako gune historikoa, aurpegia berritu nahaian /4

## PODIUMA

Fernando Zufiria, Arrasate Atletiko Taldeko entrenatzailea /11


## KULTURA

Lausardi Koru Sinfonikoaren aurkezpena Bergaran /15

## KIROLA: ERIK MARTIN GAZTE ARRASATEARRA EUSKADIKO KARATE TXAPELDUNA /11

### Bitoriano Gandiaga poeta frantziskotarra Arantzazun hil zen eguaztenean

Eguen arratsaldean egin ziren Bitoriano Gandiaga poetaren aldeko hileta elizkizunak Arantzazuko santutegian. Fraile bizkaitarra eguazten goizaldean hil zen Arantzazun, minbiziak jota, 72 urte zituela. Bitoriano Gandiaga 1928an sortu zen Mendata baserrian; 1940an frantziskotar sartu, eta 1954an apaiz egin zen. Euskaltzain urgazle ere bazen 1964az geroztik, eta ia zko urrian, osterara, euskaltzain ohorezko izendatu zuen akademiak. Hainbat aldizkari eta liburutan argitaratu zituen bere poesia lanak. /3



Bitoriano Gandiaga. EUSKALDUNON EGUNKARIA

*"Euskaraz idatzi gura dudalako besterik gabe dut idazten euskaraz. Euskara berriz besterik gabe maite dut. Euskararen etorkizunaz baino naiz euskararen orainaz arduratzenago"*

BITORIANO GANDIAGA/"Denbora galdu alde"

### Bergarako ekialdeko saihesbidearen lanak martxoan hasiko dira

Bergara ekialdeko saihesbidearen gaineko azalpenak eman zituen eguaztenean Bergarako Udaletxean Antton Jaimek, Garraio eta Errepideetako dipu-

tuak. Saihesbide berria egiteko lanak martxoaren bigarren astean hasiko dituzte eta lanak 2.584 milioi pezetako aurrekontua izango dute. Bi erreki izango ditu,

norabide bakoitzeko bana, eta ez lau. Debagoieneko alkate guztiek laukoa egitea eskatu arren. Saihesbideak 2,1 kilometroko luzera izango du. /3



### Eskoriatzako umeak lehenak aratusteak ospatzen

Eguen-gizenean ekin zioten eskoriatzarrek aratuste asteari. 1976-77an Mari Cruz Oiangueren ikastolan andereño zela errekeratutako ohiturari jarraituz, kanta-kantari jardun dute kalez kale. Batzuek zirian urdaia edo txorizoa jarrita, eta beste batzuek donuts eta gailetak jarrita, 230 ume inguruk jardun zuten kantuan. Urdeilargeroko kantua entzuteaz bat heldu dira aratusteak bailarara. /15

Gure Bailarako Patxarana



BERTAKOA. NATURALA.

Nafarroa etorbidea, 23 M1 pabillioa • ARRASATE • 943 79 10 69

# Enpresak sortzen

## Saiolanek 60 bat enpresa ideia bultzatu ditu 15 urtean


ENEKO AZKARATE

Arrasateko Enpresa Berrikuntza Zentroak, Saiolanek, 15 urte bete zituen. Saiolan, Eskola Politeknikoaren inguruan sortu zen, 1985. urtean, krisialdi ekonomiko latza zegoen urteetan. Armin Isasti Saiolaneko zuzendariak dioskun bezala, "garai haietan langabezia tasa %25ekoa zen. Honenbestez, enpresarien izpiritu sortzailea berreskuratzeko helburuarekin abiarazi genuen Saiolan".

1985-2000 urtealdian, 61 ekimen bultzatu ditu Saiolanek eta 42 enpresa berri sortu dira zentro honetatik. Gainerako egitasmoak beste enpresa batzuekin elkarlanean sortutakoak dira. Egitasmo aitzindaria izan zen, bere garaian Europan ere ez zegoelako eredurik. "Ideia eta enpresa sortzailea uztartu nahi ditu-

gu. Ideia enpresa sorzailearena berarena izan daiteke edo geuk proposatu dezakegu" diosku Armin Isastik.

Ezagupenean oinarritutako enpresak, hau da, inbertsio eta arrisku txikiak eskatzen dituztenak bultzatzea izan du helburu Saiolanek. Horren adibidea Lantek da, Saiolanetik sortutako lehenengo ekimena. Lantek 1986. urtean sortu zen eta informatika tekniko edo konputagailuetako softwarea garatzen du. Saiolanetik sortutako beste enpresa batzuk honako hauek dira: Danka (multimedia zerbitzu eta produkzioak), Idazti (zerbitzu editorialak), Atsedan (hirugarren adinekoren zainkarako zerbitzuak), Harrilur (zerbitzu geoteknikoak), Athlon (kirol medikuntza zerbitzuak), Lurkoi (aisialdirako eta jolaserako altzariak) edo Some (softwarea), batzuk bakarrik aipatzearen.



ENEKO AZKARATE

**ARMIN ISASTI /SAIOLANEKO ZUZENDARIA**

*"Euskalduna beti izan da sortzailea eta beti izan du ekimenak bultzatzeko grina"*

**A**rmin Isasti irurarra Eskola Politeknikoko irakasle izan zen, eta gaur egun, Saiolaneko zuzendari gerentea da.

**Zer da Saiolan?**

Enpresa berriak sortzeko eskola dela esan genezake. Lau faseko prozesuan laburtzen da Saiolan: lehenik,

enpresa sortzaile izan daitezkeenak aukeratzen ditugu eskoletan. Aukeratzea egin ostean, enpresa-heziketa ikastaroa ematen diegu, eta

## LAINTZ

### Etxe eta eraikinen arkitektura-lanak

**D**Juan Manera arkitekto debarra eta Marian Beitia etxe barruen dekoratzaile arrasatearra dira Laintzeko jabe eta langileak. Eraikinen zaharberitze-lanak edota etxe barruen dekorazio-lanak egiten dituzte batik bat. Proiektuaz gain, obrak ere arduratzen dira, bezeroak hala eskatuz gero.

Laintz 1992an sortu zen. Gaur egun Saiolanek Cerrajeran duen eraikinean dute egoitza, baina hasi Eskola Politeknikoan hasi ziren. Laintzeko bi jabeetako batek, Marian Beitia, 1990. urtean ekin zion Saiolanen beka baten bidez. Juan Mena bertan ezagutu zuen eta bien artean landu zuten enpresa berria sortzeko egitasmoa.

Laintzekoek Debagoienean egiten dute lan batik bat. Euren bezero nagusiak udalak eta Gipuzkoako Diputazioa dira, baina partikularrentzako ere jarduten dute. 1995-96 urtean artean Aretxabaleta, Eskoriatza eta Elgetako alde zaharreko etxeak birgaitu zituzten Diputazioaren aginduz. Bi lagun hasi ziren orain dela zortzi urte eta biek jarraitzen dute gaur egun ere.

## DANKA MULTIMEDIA

### Punta-puntan komunikazio digitalaren esparruan

**G**ustavo Carrero eta Mikel Lizarralde arrasatearrek sortu zuten Danka Multimedia enpresa 1995. urtean. Gustavo Informatikan lizentziaduna da eta Mikel, berriz, Industria Ingeniaria. Lehenengoari, Ibermatica enpresan lanean jardun ostean, proiektu berriak bultzatzeko grina sortu zitzaion, eta horregatik eman zuen izena Saiolanen, 1993. urtean. Enpresa ideiak, bideragarritasun plana, jardueraren prototipoa eta abar lantzen ziharduela, Mikelekin harremana izan zuen, eta bien artean multimedia zerbitzu eta produkzio enpresa sortzea erabaki zuten. Horrela sortu zen Danka Multimedia. Eskola Politeknikoan hasi ziren, 1997an Saiolanek Cerrajerako egoitza egokitu zuen arte. Joan zen urtera arte egon dira bertan; gaur egun, berriz, Oñatin dute egoitza nagusia, baina Bilbon

ordezkaritza dute eta hemendik gutxira Miñako Parke Teknologikoan zabalduko dute beste bat. "Zerbitzu lagunekin hasi ginen eta gaur egun 48 gara. 2000. urtea amaitu orduko 65 langile izatea aurrez ikus dugu" diosku Dankako Zuzendari Nagusi Gustavo Carrerok. Komunikazio digitalaren esparrua da Dankaren negozio bidea: internet eta multimedia zerbitzuak, komunikazio grafikoa... CD-Rom-ak, web orriak eta abar egiten dituzte.

Danka Multimediak bat egin du Emakunderen "Optima egitasmoa"-rekin, enpresan, emakumeen eta gizonen aukera bertintasuna neurtzeko. Kopiaruari dagokionez, emakumeak nagusi dira Dankan. Bestalde, Dankak *Media Magazine* izeneko berritzaile papera banatzen du doan bezero eta profesionalen artean. 13.000 ale banatzen dituzte.

# eskola

hirugarren fasean, enpresa sortzeko egitasmoa lantzen dugu: lehenbizi, ikerketa ekonomiko-finantzarioa egiten dugu, eta gero, ikerketa teknologikoa. Laugarren eta azken fasean, produktuaren merkaturatze esperimentalala egiten dugu. Azken baten, gure gestio ereduaren lau elementu biltzen dira: enpresa sortzailea, negozioarako ideia, enpresa egitasmoa garatzeko metodologia eta baliabideak. Azken horretan, tutoretza da garrantzitsuenak, baina baliabide ekonomikoak eta teknikoak ere kontuan hartzen ditugu. Metodologia bera erabiltzen dugu enpresa proiektu ezberdinetarako.

**Eta zenbat irauten du prozesu horrek?**

Proiektuaren arabera, labur edo luze jo dezake. Enpresa ideia merkaturatzeak sei hilabetetik urtebetera bitartean iraun dezake.

**Zeintzuk dira Saiolanek erabiltzen dituen irizpideak egitasmo bat aukeratzeko?**

Egitasmoaren bideragarritasuna hartzen dugu kontuan: kostuak, irabaziak eta merkaturatzeko zailtasunak. Urtean, era guztietako dozena erdi egitasmo inguru lantzen ditugu. Behin merkaturatu eta gero, Saiolanetik bultzatu ditugun ia enpresa ideia guztiek aurrera egin dute. Enpresa berriak sortzerakoan, beti dago arriskuren bat, baina arrisku hori neurtzen saiatzen gara. Arriskuan dago itzarope-

**“ Dakienak egiten du eta ez dakienak irakatsi egiten du”**

**“ Umorea, saiatzeko gaitasuna izatea, tolerantzia, sormena..., dira enpresa sortzaileen ezaugarriak”**

na da gure leloa. Askotan, zalantzak izan ditugu enpresa ideia batzuen bideragarritasunaren gainean, baina behin eta berriro saiaturik, azkenean, aurrera jo dute.

**Zeintzuk dira enpresa sortzaileen ezaugarriak?**

Saiatzeko gaitasuna izatea, umorea, malgutasuna, tolerantzia, elkarlanerako gaitasuna, austeritatea, sormena..., hau da, arazoaren aurrean irtenbide-

ak aurkitzeko gai izatea.

Eskolan nota bikainak ateratzea edo curriculum izugarria izatea ez da hain garrantzitsua. Saiolanen, goi mailako ikasketak bariko edo unibertsitate titulu barikoak ere izan ditugu, eta horiek ere aurrera egin dute.

**Tutoretza lanak Eskolako irakasleek egiten dituzte?**

Bai. Dakienak egiten du, eta ez dakienak irakatsi egiten du. Hori askotan esaten dugu gure artean. Enpresa sortzaile izan daitezkeenak aukeratzeko gaitasuna izatea garrantzitsua da tutorearendako. Bestalde, tutoretza lana edo irakasleen eskola bezain garrantzitsua da proiektua lantzen dihardutenen arteko harremana.

**Euskalduna beti izan da enpresa sortzailea...**

Bai, hori da gure izaeraren ezaugarrietako bat. Enpresa sortzaile izateari uzten diogunean edo arriskuak hartzeari uzten diogunean, euskaldun izaerari uko egingo diogu. Ustedut batzuetan ahaztu egiten zaigula hori. Euskalduna beti izan da sortzailea, eta beti izan du ekimen berriak bultzatzeko grina, nahiz eta azkenaldian, lanpostu finkoa izan helburu nagusia. Kultura sortzailea bultzatu behar dugu, eta porrot egiteko askatasun guztia izateko espazioak edo baliabideak sortu behar ditugu. Ekonomia ondo doa, eta hori ona da, baina horrek lelotu egin gaitu apur bat. Arriskuak hartu behar ditugu. Porrota da arrakastaren hazia.

## Bailaran, labur

### HERIOTZA

#### Bitoriano Gandiaga poeta hil da oraingo astean Arantzazuko santutegian

Bitoriano Gandiaga poeta hil zen eguazten goizaldean Arantzazun, minbiziak jota. Fraile bizkaitarra 72 urte zituela hil zen. Bitorianoaren aldeko hileta elizkizunak eguen arratsaldean egin ziren Arantzazuko santutegian. Orain dela bi hilabete ebakuntza egin zioten gaitzari aurre egiteko, baina ez zen onik atera. Bitoriano Gandiaga 1928an sortu zen Mendata baserrian; 1940an frantziskotar sartu, eta 1954an apaiz egin zen. Askoren ustez, euskal poesia modernoaren aitetako bat izan zen. Euskaltzain urgazle ere bazen 1964az geroztik, eta iazko urrian, ostera, euskaltzain ohorezko izendatu zuen akademiak. *Arantzazu*, *Euzko Gogoa*, *Egan* eta *Olerti*-n eman zituen argitarara bere lehen idazlanak, eta 1962an argitaratu zuen lehen poema liburua: *Elorri*. *Hiru gizon bakarka*, *Uda batez Madril*en, *Denbora galdu alde* dira beste liburu batzuen izenburuak. Azken poema liburua 1997an argitaratu zuen, *Ahotsik behartu gabe* izenekoa. Bitoriano Gandiaga Debagoieneko ondarea babesteko Kapirixo elkarteak kidea zen. /ENEKO AZKARATE

### BAKE PROZESUA

#### Elkarri Bake Konferentziarako proposamenak aurkezten dabil

Aurreko martitzenean, Elkarriren Bake Konferentzia-aren gaineko nondik norakoak azaldu zituen Jonan Fernandezek Arrasateko Monterron jauregian. Hitzaldiak ikusmin handia sortu zuen, eta aretoa goraino bete zen Elkarriren proposamenak entzuteko. Elkarri aurtengo udazkenean egin gura duen Bake Konferentzia herriz herri aurkezten ari dira egunotan. Antzuolan atzo, eguena, aurkeztu zuten. *Goienkariak* elkarrizketa egin dio Jonan Fernandezi, eta datorren astean argitaratuko dugu. /E.A

### ERREPIDEAK

#### Bergarako ekialdeko saihebidetako egiteko lanak martxoan hasiko dituzte

Eguaztenean, Bergara ekialdeko saihebidetako egiteko lanak martxoan hasiko dituzte. Lanok 2.584 milioi pezetako aurrekontua izango dute. Bi errete izango ditu, norabide bakoitzeko bana, eta ez lau, Debagoieneko alkate guztiek laukoa egitea eskatu arren. Edozelan ere, etorkizunean Bergara eta Ormaiztegi arteko errepide berriak lau errete izango balitu, saihebidetako lanak martxoan hasiko dituzte. Saihebidetako 2,1 kilometroko luzera izango du, eta 300 metro lur azpitik joango da (Zubiaurreko tunela). Oruesagasti baserriaren ondoko Galartza lotunetik, Labegaraieta industrialdearen amaierara arte, Telleriako lotunera arte luzatuko da. Saihebidetako Beasain-Durango ardatzaren zati bat izango da, eta Telleriaren lotuneari Eibar-Gasteiz autobidearekin bat egingo du. Urte eta erdian bukatuta beharko lukete lanok. Oraingo astean, Bergarako Udaletxean zabaldu duten erakusketa martxoaren 14ra arte egongo da zabalik, egunero, 18:30etik 21:00etara. /E.A.

### LAPURRETA

#### Miloi bateko balioa zuen tabakoa ostu dute Aretxabaletako estanko baten

Ez eguztagun batzuek lapurreta egin zuten eguen goizaldean Aretxabaletako Ibarra etsankotan. Ertzaintzak emandako datuen arabera, lapurrek kanpoko hesiak apurtu zituzten eta atea indarrez lehertzen ahalegindu ziren. Hori ezin lortu, eta leihoko kristala hautsi zuten, tabako denda barrura sartzeko. Biltokian zegoen ia tabako gorri guztia, eta puru kaxa guztiak eroan zituzten lapurrek, merkaturako prezioan, milioi bat pezeta inguru. /E.A.

## GARAIEN

### Internetarako komunikazio eta marketing proiektuak

Enberitz Gurrutzagak Enpresari ikasketak egiten ditu eta marketinga da bere espezialitatea. Ainarak Mujikak, oster, diseinu grafikoa ikasi zuen. Biak Saiolanen ari dira internet eta marketing arloak uztartzen dituen egitasmo bat lantzen. Hirugarren baten laguntza ere badute, hain zuzen ere Arnaitz Urkiarena. Hiruen artean enpresa berria sortu dute.

Donostialdekoak dira hiruak, baina Arrasaterak etortzea erabaki dute. Ainarak dioskun bezala, "enpresa ikasketak eginda, enpresa berria sortzen ahalegintzen ez banaiz... Bestalde, lanean aritokak ere bagara, baina ordu asko sartu eta diru gutxi irabazi. Horrela erabaki genuen hona etortzea. Zer edo zer sortzen badugu hobeto, baina hala ez bada ere, hemen ikasitakoa gerorako ere balioko zaigu".

Armin Esteko unibertsitatara hitzaldi bat ematera joan zenean ezagutu zuen Ainarak Saiolan. Interesgarria iruditu zitzaion eta horrela etorri ziren Eskola Politeknikora. Joan zen ikasturteak daude hemen. Marketinga eta komunikazioa landu nahi dituzte eta horren arloko enpresa bat sortu. Erreminta makinako enpresek-eta azoketan izaten dituzten estand guztiak berdin samarrak direla, eta ez dutela pertsonalizatzen ikusi dute. Bestalde, uste dute gaur egun ferietara makinak eroan beharrik ez dagoela. Teknologia berriak erabiliz gero, badaudela produktua erakusteko beste modu batzuk: bideo interaktiboak, internet, hiru dimentsioko irudi birtuak... Beraz, internet, komunikazioa eta marketinga uztartu eta Goienera izeneko enpresa sortu berri dute. Dagoeneko lan batzuk enkargatu dizkiete.

BERGARA

URBANIZAZIO LANAK

ANTZUOLA

# Xabier Maria Munibe plaza berria egingo dute alde zaharrean

*Pazkuetarako amaituko dute, eta Ibargaraiko gune berria eta alde zaharra lotuko ditu*

MONIKA BELASTEGI

**Bidekurutzeta kalean kokatuko da, San Martin, herriko plaza nagusiaren ondoan. Xabier Maria de Munibe izena jarriko diote, Peñafloidako kontearen omenez. Joan zen zapatuan, hilak 17 hasi zituzten lanak.**

Munibe plaza, Mendekoste jaientarako, ekain hasierarako, eraikita egongo da, Josean Etxeberria, Hirigintza zinegotziaren arabera. Bidekurutzetan, Zabalak Ondartza, eta Moyua jauregiaren artean egongo da kokatuta, herriko plaza nagusitik oso hurbil. Urteak direla, plaza egingo den orubean, Galarreta zapatadenda eta Iñarre haroztegia zeuden. Gaur egun, etxe haren kanpoko hormak besterik ez ziren geratzen. Joan zen zapatuan, bota egin zituzten eta abian dira plazaren urbanizazio lanak.



Xabier Maria Munibe plazak erabat itxuraldatuko du ingurua.

MONIKA BELASTEGI

## ALDE ZAHAR ETA BERRIA LOTU

Munibe plaza 20. Areako (Ibargaraiko kaleko zonalde berria) urbanizazio lanen barruan egiteko asmoa dute. Ibargaraiko inguru-

rune berria eta alde zaharraren arteko lotura lanak egingo ditu. Izan ere, urte batzuetara, Xabier Maria Munibe plaza Iparragirre kalearekin lotuko dute, gaur

egungo kalekantoi estua zabalduz.

Zuhaitzak, eserlekuak eta argiteria izango ditu plazak. Baita komun publikoak ere, orain urte asko San Martin plazan kendu zituztenak ordezeko. Plaza urbanizatzeko aurrekontua 32 milioi pezetakoa da.

## PEÑAFLORIDAKO KONTEA

Izena Xabier Maria de Munibe bazuen ere, Peñafloidako konte bezala ezagunagoa dugu plazari izena eman diona. Azkoitiarra izanik, Bergaran hainbat urte bizi izan zen, eta baita bertan hil ere 1785.ean. Izen handiko gizona izan zen, eta hainbat kargu politiko ere bete zituen: Azkoitiko alkate izan zen, Diputatu Madrilgo gortean eta Gipuzkoako ahalzun nagusi. Idazlea eta musikoa ere izan zen. Berea da, esaterako, "El borracho burlado" opera komikoa, 1764. urtean Bergarako udaletxean estreinatua.

## Euskal hezkuntza sistema baten aldeko mozioa onartu zuten

AINTZANE IRIZAR

Joan zen eguneko osoko bilkuran euskal hezkuntza sistema propio baten aldeko mozioa onartu zuten, aho batez. Onartutako mozioa, Espainiar Gobernuak bultzatutako humanitateen erformarako hezkuntza dekretuaren aurrean udalbatzarrak adostutako testua da. Hainbat puntuetan testu horrek: alde batetik, euskaldunok geure hezkuntza sistema propioa antolatzea eskubidea aldarrikatzen du; bestetik, dekretu hori Madril eta Pariseko gobernuen hezkuntza politikaren ildotik doala salatu zuten dute testuan.

## BAKE EPAILE LANPOSTUA

Bestalde, bake epaile berria aukeratzeko deialdia egin dute. Lanpostu hau lau urterako izaten da. Baldintza plegua, beraz, kalean da. Baldintzak, Antzuolan bizi zuten eta adinez nagusia izateko dira. Eskakerak aurkezteko epea martxoaren 16an amaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxera jo dezakezue.

OÑATI

ZUNTZ OPTIKOA

## Herria telekomunikazioetako enbor-sarera lotuko da

*Hiribarruko sareak erregularizatuko dituen Ordenantza prestatzen ari da Mankomunitatea*

AINTZANE IRIZAR

Otsailaren 1eko Gobernu Batzordearen batzarrean, Euskaltel enpresak proposaturiko telekomunikazioetako (fibra optikoa) sarearen ibilbidea ontzat ematea erabaki zuten. Honela, Oñati enbor-sarearekin lotuko da. Enbor-sarea herriak euren artean lotzen dituen da. Orain, Eloregetik pasatzen da enbor-sare hori. Ibilbidearen arabera, Eloregetik Otadui zuhaitziraino etorriko litzateke sarea. Eta hiribarrutik Legazpiko mugaraino. Torreaurotik Santxolopetegiraino bidean, ibilbide bat dator udalaren saneamendu hodien lanekin. Beraz, zati horretan, bi lanak batera egingo dituzte, egingo duten zuloa hodi guztiak sartzeko aprobetxatuko dute, lurren jabeek ahalik eta kalterik txikiena egiteko asmoz.

Oraingoan, Euskaltelek bakarrik egin du eskaera eta

ibilbide proposamena aurkeztu. Baina, udaleko arduradunek aurretik ikusten dutenaren arabera, atzetik beste operadore batzuk ere etorri daitezke, antzerako eskaerekin. Horregatik, ibilbide hori egiten dutenean, beste enpresa batzuren kableaturako hodiak sartuko dituzte, eta horrela azpiegitura prest utziko dute.

Hiribarruko sarea hedatzearen inguruan, bestalde, ez dago gaur gaurkoz inolako ordenantzarik. Aurrera begira, esan bezala, asko izan daitezke fibra optikoa jarri nahiko duten operadoreak. Mankomunitatea hori nola

eta zein baldintzatan egin erregulatuko duen Ordenantza prestatzen ari da, eta hilabete barru bukatuko ei dute. Hiribarruko sare hedaketa, beraz, Ordenantza horrek erregulatuko du. Era horretan, herri bakoitzak bere aldetik araudia egin behar duen, bat bakarria egingo dute Mankomunitateko herri guztiak arautuko dituen.

## Zertzelada

**Eloregetik Otadui zuhaitziraino etorriko da enbor-sarea, eta ETEOetik Legazpiko mugaraino jarraituko du; oraingoan, ez da hiribarruko sare hedapenik egingo**

ESKORIATZA

HIRIGINTZA PROIEKTUAK


## Eskoriatzako gune historikoa, aurpegia berri nahian

*Santa Marina plaza eta bere inguruak erabat aldatuko dituen proiektua aurkeztu berri dute udal agintariak*

IÑIGO BIAIN

Joan zen asteko ostegunean, hila- ren 15ean, Eskoriatzarentzako benetan garrantzizkoa izango den hirigintza proiektuaren aurrerapena aurkeztu zuten Eskoriatzako Kultur Etxean. Proiektuaren aurkezpena egiten, eta bertan bildutako interesatuen zalantza eta kezka erantzuten, Ion Txabarri arkitektoa izan zen alde batetik, eta Edorta Zubizarreta alkatea bestetik.

Aurreproiektu honetan, Santa Marina plaza eta bere inguruko lurretan hainbat aldaketa aurrekusi dituzte, besteak beste Santa Marinar bertan dauden bi lantegien tokialdatzea eta hainbat etxebizitza botatzea. Horien tokian, eta gaur egun baratzeek betetzen duten lurzoruan, 135 etxebizitza eraiki nahi dituzte, 270 aparkalekurekin batera, eta berdegune zabala geratuko da errekaren inguruan. Hori guztia Aranburuzabala kaleko 14 zenbakitik hasi (desagertu egingo den etxebizitza) eta Santa Ana auzoraino joango litzateke.



Proiektua Kultur Etxean aurkeztu zuten udal agintariak.

Proiektuaren aurkezpenean hainbat eskoriatzar bildu zen, batez ere, proiektuaren arabera beren lur eta etxebizitzetan eragina izango dutenak. Zalantza guztiak zilegi badira ere, Ion Txabarri esan bezala, proiektua oro har, oso onuragarria izango da eskoriatzar guztien

tzako, gune historikoan bertan dagoen lurzoru handia (18.900 metro karratukoa) berreskuratuko baitute herriarentzako, eta orain arte lantegien azpian egotzen diren erreka bera ere azaleratuko dute. Proiektua ikusgai izango da udaletxean nahi duenentzako.

ARRASATE TUNELA EZ DU DIPUTAZIOAK ORDAINDUKO

# Olandixoko tunela egiteko dirua udalak jarri behar du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez

*Aurtengo aurrekontuetan, behintzat, ez du diru partidarik aurrez ikusi Diputazioak*

UBANE MADERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du bere gain hartuko Olandixon tunela egiteko plana, eta aurtun, behintzat, ez du tunela egiteko partida zuzenik bideratuko. Aldundiko Errepide Sailaren ustez, lan hori udalari dagokio, herri barruko errepidea da eta. Halaxe adierazi zuen Errepide sailburu Antton Jaimek herenegun. Anttonen esanetan, tunel hori "Arrasatera datozenek edo Arrasatetik kanpora doazenek erabiliko dute"; hortaz, Arrasateri dagokio lanak egitea. Gaine-

ra, diputazioak ez ei dauka proiektu hori egiteko dirurik. Dena dela, datozen hiru urteotan 1.350 milioi pezeta emango ditu Garaia proiekturako, eta Roman Sodupe ahal-dun nagusiak adierazi duenez, kopuru horretako zati bat erabil daiteke Olandixoko tunela egiteko. Arrasateko udal ordezkariak, bestalde, esaten dute Olandixoko tunela saihebidetara dela, eta hortaz, egitea ez dagokiola herriko udalari, diputazioari baizik.

## BATZORDEA

Ikusten denez, tunelaren etorkizuna erabakitzeke dago, eta ez du

konponbide errazik. Hori dela eta, Olandixon tunela egitearen aldeko batzorde bat eratuko du Arrasateko Udalak. Taldea, besteak beste, Mondragon Unibertsitateak, Fagorrek eta Olandixoko inguruan bizi direnek osatuko dute.

Bien bitartean, badirudi eztabaidak jarraituko duela; batzordeak eta aldundiak datozen egunetan hainbat batzar egingo dituzte. Eta ezer erabakitzen ez duten artean, zirkulazioak pila-pila egingo segituko du. Olandixoko tunelak 2.200.000 pezetako aurrekontua du.



Oraingoz erabakitzeke dago Olandixoko tunelaren etorkizuna.

UBANE MADERA

## ARETXABALETA

**Konpondu dute larunbatean ezezagun batzuek apurtutako elizako erlojua**

AMAGOIA LASAGABASTER

Joan den larunbat gauean, ezezagun batzuek Andra Mariaren Zeruratzeko parrokiako aldamiotara igo eta kanpandorreko erloju batean kalteak eragin zituzten. Erlojuaren borobila manipulatzear gain, orratzak bere lekutik atera zituzten. Horren ondorioz, parrokiako aurrealdean dagoen erlojuak, ordubetako atzerapenarekin ematen zuen ordua. Jose Olabe, parrokiako lanen arduraduna, aste guztian ibili da erloju konponduko duen pertsona baten bila. Izan ere, 100 urtetik gorako erlojuak dira, eta horien konponketak zailak eta kontuz egitekoak izaten omen dira. Hala ere, otsailaren 20an, lan handia egin ostean, Nikasio Alvaro arrasatearrak erlojuak konpondu zuen.

Parrokiako erlojuak, 1860. urtean egin zituzten "Viuda De Murua" Gasteizko erloju lantokian. Beraz, euren funtzioa edukitzeaz gain, balio handiko ondarea dira. Horregatik, parrokiako arduradunak, guztionak diren ondasunak errespetatu eta zaintzeko eskaera egin die herritarrei.

Elizako zaharberitze lanak direla eta, hilabete honen bukaeran parrokiak itxiko dute. Hiru hilabetez arituko dira barrualdeko lanak egiten, beraz epe horretan beste nonbait eman beharko dituzte mezak. Eguneroko mezak, mojen komentuan emango dituzte. Hileta eta gainontzeko elizkizunetarako, berriz, ez dute leku aproposik aurkitu.

## ARAMAIO

## KULTURA ETXE BERRIA

**Kultura Etxea uztaileko bukatutzeko asmoa dute**

*Hiru pisuak berritzeko 150 milioi gastatu dira*

UBANE MADERA

Kultura Etxeko lanak dezente aurreratuta doaz. Urte eta erdi dela hasi ziren eraikina egokitu eta berritzen, eta aurtun bukatuko dute. Asmoa da herriko jaietarako, San Martinetarako, bukatzea. Etxeak dituen hiru pisuak berritzeko, 150 milioi pezetako inbertsioa egingo dute.

## HIRUGARREN PISUA

Eraikinak hiru gunen nagusi ditu: bi dorre alboetan eta erdian beste tarte bat.


Ezkerreko dorrearen hirugarren pisua gazteendako da. Telebista ikusteko edo antzeko-etarako gela bat egokituko zaie, beste bat batzarrak egiteko, eta hirugarrena jolasendako-edo.

Eskumako dorrearen hirugarren pisuan zeramika gela egiten dabilta; beste gela bat herri-

kó kultura eta kirol taldeendako, eta batzar gela handiago bat ere egokituko dute.

## ZINEMA ETA LIBURUTEGIA

Bigarren pisura jaitsiz gero, eskumako dorrean liburutegia aurkituko dugu; oraingoa baino bikoitza, gutxi gorabehera. Pisu horren erdialdean beste bi lokal egokituko dira. Eta beheko pisuan zinema berria egongo da. 102 lagunendako lekua izango du, eta zinema moduan erabiltzen ez denean, beste ekintza batzuetarako erabili ahal izango da, antzoki moduan, esaterako. Horren ondoan, gaztetxoendako ludoteka egongo da. Pisu bereko eskumaldea, bestalde, erretiratuendako izango da. Eguneko zentro moduan ere erabili ahal izango da. Eta egoteko gune bat ere egokituko dute, taberna, bulego, eta bestelakoekin.



Kultura Etxeko lanak jaietarako amaitzea aurrez ikusi da.

UBANE MADERA

ROUTER  
COMUNICACIONES, S.L.

**Bost arrazoiengatik erosi behar duzu Euskalteko saltoki globaletan:**

- Saltzeko orduan arintasuna
- Telefono kostuetan aurreztea\*
- Enpresa-merkatuko alderdi garrantzitsuenen informazioa
- Bezeroekin harreman hobea
- Sakelako telefonoen konponketa bideratzeko zerbitzua

## ENPRESA ZERBITZUA:

- Telefono digitalen telefonogunea
- Telefonía mobila
- Internet
- Telefono finkoak 1050
- Hari digital bariko telefonoak (DECT)


## ZERBITZU PARTIKULARRAK:

- Aurreordaindutako Euskaltel pack-ak
- Internet
- Telefono finkoak 1050

**ARRASATE**  
Maalako errebala, 8-behea  
Atzekoa (Garibai)  
Tel.: 943 71 27 81  
Faxa: 943 71 17 85

**EIBAR**  
Errebal, 15  
Tel.: 943 70 03 69  
Faxa: 943 20 63 79

SALTOKI GLOBALA:



\*2000ko urriko bategi batez beste kontsumo gordinaren arabera. EACko tarifetarako %11rainoko aurrezpena.

## Zabalik

JABIER  
ARANZETA

## Arrazoaia

**B**adakigu Ibarretzek hauteskundeak aurreratzeko benetako arrazoi hori ezkutu samarrekoa da, baina, hala ere, daukan garrantziarengatik hemen argitaratuko dut.

Baina has nadin gehiago luzatu baino lehen arrazoi hori azaltzen. Enriquetta Benito parlamentari arabarraren koinata batek Benidormetik ekarri du aurrerapen honen zergatia. Izan ere, Benidormetik oparitzo abertzale (beste aberriko) bat ekarri du eta hortik sortu da arazoa.

Oparitzo hau galtzontzilo dotore batzuk dira, txiki-txikiak eta zeharo erotikoak, eta Espainiako bandera dutenak. Benito andereak ikusi dituen berehalak erabaki du egin beharrekoa: ez legezko proposamen bat aurkeztuko dut Parlamentuan lehendakari, kontseilari, parlamentari, ertzain, eta bestelako Eusko Jaurlaritzako gizezko guztiak galtzontzilo horiek erabil ditzaten, oso inportantea baita Espainia gure barruan eramatea.


Parlamentuan daukaten gehiengoari esker aurrera aterako zen proposamen hori, eta horren berri izan duenean berehalako erabakia hartu du lehendakariak. Ez zaio asko inportata bere barrenik barrenean Espainiako ikurra erabiltzea, baina bizikletan ibiltzeko ere nahikoa lan ematen dioten galtzontzilo estu horiek egun osoan erabiltzea: horixe bai ezetz.

Horregatik izango ditugu guztia konponduko ei duten hauteskundeak eta ez beste ezergatik. Bitartean Aratusteak ere gainean ditugu eta hau irakurrita norbaitek barre egingo zuelakoan, hori ere oso garrantzitsua da eta, ondo ibili eta asko-asko jo guztiok, honek ere ez dauka garrantzia gutxiagorik eta.

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 72  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: iritzia@goiena.com



## Salaketa egin nahi dut

**B**arne Ministerioa salatu nahi dut, Gamaran, Gasteizen, 1982an Guardia Zibilarren kontrol batean gertatutako nire gurasoen erailketa dela eta. Sozialistak zeuden agintean, eta Mayor Orejaren aurkako atentatua jazo zen. Erasoaren egilea ETA zela pentsatu zuten, eta Seat 127 bat fitxatu zuten. Polizia kontrolean, nire gurasoak Seat 127 batean zihoazen, eta guardia zibilek, ETAKo kideak zirelakoan, ondo-ondotik tiro egin zieten zalantza egin barik. Bertsio ofiziala, gurpiletara tiro egin zutela izan zen, eta komunikabideek hala argitaratu zuten, baina, gurpiletara tiro eginda, pertsona bi hil ote daitezkeen erantzun diezadaten gurako nuke.

Bai Mayor Orejaren idazkariak, bai Berorren Maiestatearenak (izan ere, Juan Carlos erregea agintean zegoela argitu beharra dago), garai hartan inolako salaketarik egon ez zela baieztatu zidaten. Beraz, batakat zein besteak bertsio ofiziala onartu dezatela nahi dut.

Bestalde, Bergarako Notariotzaren aurkako beste salaketa bat egin gura dut, nire neba Rafael Agiriano Barandiaranen eta Maria Victoria Solana Viteriren laguntzarekin egin zuten dokumentuen bidegabeko erabilera eta faltsifikazioagatik. Azken bi horiek salatu nahi ditut gainera, lapurretagatik, egoitzaren bortxaketagatik, faltsukeriagatik, irainengatik eta intimitate eskubideen bortxaketagatik.

NEREA AGIRIANO BARANDIARAN  
Bergara

## Egunkarietatik jasoa

## Naturaren poeta

**I**zan den eta egin duen guztian, oso pertsonala izan da beti. Poeta eta pertsona. Gorputza mardo, musu energiko beltza. Azal morkotsaren barruan izpiriturik delikatuenak.

Pertsona bezala, guk Zegaman "ume irritue" esaten duguna zen. Haur bat. Haur on bat, azkenean. Urduria, estu larria, ezinegona, kontentagaitza bere buruarekin, insegurua, minbera. Horregatixe, batzutan lakarra, batzutan bigun gozoa.

Poesian forma ezberdinak entseiatu ditu, prosan hala bertsoan eta bertso librean. Fintasan eta goitasun zilartu berri hura, lehenengo, Elorri-n. Pitxika, zatitxoka. Beiritalak bezala. Hiru gizon bakarka-z gero sotiltasun selektoa, barne hustuka, nasaiago. Espresioa, duin zaindua beti. Eskrupuloso. Puntillista. Hizkeraren eta esaera bakoitzaren, askotan hitz bakoitzaren gozamen utzigaitz bat dago haren jarioan, irakurketa etenarazten dizuna, hitz bati, irudi bati, hobeto erreparatzeko. Doinua hartzen du paperean hitzak. Kolorea eta gustoa hartzen du.

Mundu txikiaren eta gauza txikien poeta. Euskaldunaren poeta. Bizitza umilaren poeta. Naturaren poeta. Arantzazu lagun min bat bezala, Euskal Herria bere familia bezala, maite zituen poeta. Bizitzaren adoztaile. Jainkoan sinestun. Sinesgabeetan sinestun. Arima xalo frantziskotar zabal, paisajearen anaia, argiaren eta lurraren poeta adiskidea.

Asko maitatu du, asko sofritu du.

Villasante bezala, Arantzazuk oraindik ematen dakien horietako gizakia izan da, gizon apal santua. Zentzurik hoberenean. Eskerrik asko, Arantzazu. Eskerrik asko, Bitoriano.

JOXE AZURMENDI

Idazle eta pentsalaria  
Euskaldunon Egunkaria/2001-02-22

## Basati eta delikatua

**B**ehin izan naiz ("nintzen" esan beharko Bdut aurrerantzean) Bitorianoekin aurrez aurre eta lasai samar, orain dela hamar bat urte. Gizon apala, lotsatia ("piztia izua" deitzen zion bere lagun Joxe Azurmendik), eta, hala ere, izugarritzko inpresioa eragiten zizuna: xarma berezia zerion bere hizketa-moduari, benetakotasuna bere izaite osoari.

Antzekoa da Gandiagaren poesiak sortarazten duen zirrara: itxurazko sinplezia baten azpian perfekzio landua dago, eta bihotz zabal baten taupada bortitza. Mendiko lorearen edertasun basati eta delikatuen moduan edo: Elorri liluragarria Hiru gizon bakarka profetikoa, Uda baten Madril kaleidoskopikoa, Denbora galdalde barne-mindua, Ahotsik behartu gabe azkenekoa... Orain galdu dugu gizona, baina geratzen zaigu haren lurrina, topiko errepikatua barkatzen bazait, ez baita erraza hildakoez ezer taxuzkorik esatea. Bitoriano berak, ordea, dotorezia baikorrez irudikatu zuen bere heriotza, frantziskotarren umiltasuna eta arbasoen espiritu paganoa uztartuz: "Hil ondoren / poza dadila lurrean / opa ahal izatearen / atsegina daukat".

Panteismoz blaitu ohi dute bere kristautasuna izadia maite duten fraideek. Horrenbestez, Gandiagaz oroitu gogara Arantzazura igotzen garen bakoitzean, eta batez ere txori bat bere hegaldian etena eginda harkaitz batean geldirik sumatzen badugu: «Hegaztientzat pausarri, / arraintzako uharrri, / aininduke lur maiteak / zerbaitetan lagungarri».

XABIER MENDIGUREN

Idazlea  
Gara/2001-02-22

## Naturaren begiez munduari so


(...)

**P**oeta baten hitzak azkenik berak maite duen hori ulertzeko beharrezkoak bihurtzen dira: oinarrizkoak. Dante gabe ez dago infernuri deskribatzerik; Petrarca gabe Laura itzal huts izango zen eta guk ezagutzen dugun amodioa galduta zitzagun aspalditik; Kafka gabe gizakia azpildurarik gabea genuen, misteriorik gabea. Gandiaga lehendabiziko aldiz ikaraz hurbildu zi-tzaion Naturari, harrimezez egin zion so hari. Berehalak ordea bat egin zen harekin, eta Naturaren ezaugarriak, haren usain, kolore, dardara, hitz batez dena, bere baitan gorde zuen. Azkenik Naturaren begiez egiten zion so munduari. Natura zen.

FELIPE JUARISTI

Idazlea  
DV/2001-02-22

## Olatz eta Patxi



MIKEL ARROIABE

## Eztabaida

Lan astea 35 ordu murriztea da sindikatuen ahalegin nagusia. Lanpostu gehiago sortzeko beharrezko neurria ei da lan orduen murrizketa, beste batzuen artean, batez ere ekonomia une onean dago-

elako. Enpresarioak, aldiz, ez dira iritzi berekoak. Lan orduak murriztuz gero, lehiakortasuna galdu eta aberastasun gutxiago lortuko omen lukete lanpostu berriak sortzeko. Eztabaida honetan, herrialde

batzuetan, Frantzian esaterako, murriztu dute lan astea. Gurean, administrazio publikoak indarrean jarri du 35 orduko lan astea. Sektore pribatuan, ostera, bestelakoa da egoera.

# 35 orduko lan-astearekin lanpostu gehiago sortuko dira?

*Hazkunde ekonomikoak horretarako tartea uzten du*



LEIRE  
TXAKARTEGI  
Deba arroko  
ELAko arduraduna

Lan gabeziarena arazo estrukturala da, eta lanpostu berriak sortzea bultzatzen duten politikez gain, beharrezkoa da dagoen lana hobeto banatzea. Enplegua banatzeko neurrien artean, 35 orduko lan-astea daukagu, beste neurri batzuen artean, hala nola, errelebu kontratuak, aparteko orduen desagertzea... Zilegiak ote dira, ordea, 35 orduak? Posible da 35 orduko lan-astea? Bai, noski, kontuan hartzen badugu hazkunde ekonomikoak horretarako tarterik lagatzen duela. Enplegua sortzeko guztiok

daukagu zerbait eman beharra, baita enpresariak ere, euren mozkinak ez baitira diru hutsetik sortzen. Enpresetan egindako lanak egiten du posible kapitala ugaltzea. Baina, zer bide daude 35 orduko lan-astera hurbilduko gaituen lan- orduen murrizketa lortzeko? Hiru direla esan genezake: lehenengoa, legearen bidez ezarritakoa litzateke, Frantziako kasua, adibidez; bigarrena, enpresari, sindikatu eta Administrazioaren arteko hiru aldetara egingo litzatekeen akordio baten bidez; eta hirugarrena, negoziaketa kolektiboaren bidez.

Hego Euskal Herrian ez daukagu, zoritxarrez, 35 orduko lan-astea legez ezartzeko kompetentziarik, lan arloko eskumena Madrilgo Korteei baitagokie. Hortaz, 35 orduak lortzeko beste bideak jorratu beharko ditugu, eta une honetan, negoziazio kolektiboa da aukerarik gehien eskaintzen diguna.

Sektore publikoan, Negoziazio Mahai Nagusian, 35 orduak lortu ditugu. Euskal Autonomia Erkidegoan 2000-2003. urteetarako sinatutako 35 orduko lan-asteak lanpostu kopuru garrantzitsua sortu eta finkatuko du: Administrazio Orokorrean, 1.050 lanpostu; Hezkuntzan, 1.000; Osakidetzan, 2.500... Administrazio Lokalean, udal bakoitzean zehaztu behar da zenbat lanpostu izango diren, baina aurre-erapen bezala, 3.500 inguru izango direla uste dugu. Sektore pribatuan urrunago gaude.

## Borondatea edukiz gero...


Enpresarioek diote lan-astea 35 ordu murrizten bada, lehiakortasuna galtzen dela eta ez direla lanpostu berriak sortzen. Ez nago horrekin ados. Uste dut langileek une txarretan nahiko sakrifizio egin dutela, eta gaur egun, ekonomiaren-

dako garai onak direla, enpresarioak mozkinak ateratzen ari direlako. Hortaz, uste dut sakrifizioa egitea eurei dagokiela oraingoan. Elkartasun kontua da. Irabaziak beste era batera bana daitezke. Gauzak ondo eginez izan gaitezke lehiakorrak, eta

ez merke eginez. Euskal Herrian, gauzak ondo egiten ohituta gaude, bai enpresarioak eta baita langileak ere.

J. I. SANCHEZ  
Arrasate

*Nahastea sortzeko formula besterik ez*



ARTURO  
GARCIA  
ADEGIKO idazkari  
nagusien ordezkaria

Lan astearen 35 orduko murrizketa, langabeziaren arazoan irtenbide modura ematea, nahastea sortzea baino ez da. Aitzitik, guk uste dugu, neurri horrek lana ez ugaritzeaz gain, gaur egun dagoena zailduko lukeela. Lanaldiaren edozein murrizketak lan kostuen gehikuntza dakar, eta ondorioz, lehiakortasuna gutxitzea, hau da, Estatuko nahiz nazioarteko lehiakideen aldean desabantaila, eta azken batean, lanpostuen galera.

Argi dago lana sortzeko modu bakarra lehiakortasuna areagotzea dela, eta horrek enpresen salmenta eta emaitzak hobetuko lituzke. Hobekuntza horrek langileak kontratatzeke beharra eragingo luke.

Lanaldia asteke 35 ordu murrizteak, milaka lanpostu sortuko lituzkeela frogatzeko formula matematikoetara jotzea, nahastea eragitea eta demagogiaz jokatzeko da.

Bestalde, begi bistakoa da azken hamarkadetan taldeko negoziazioaren joera, lan orduak murriztekoa dela. Eta murrizketa hori, arlo edo enpresa bakoitzerako moldatu beharra dago, ez baitago formula unibertsalik; enpresen lehiakortasunarekin bateragarria izan behar du eta horrela lanaren denboraren antolaketan malgutasun handiagoa ekarriko du; eta azkenik, ez ditu lan kostuak gehitu behar.

## Gora eta Behera

### GIZA GENOMAREN MAPA



Gaixotasunak ikertzeko eta, oro har, zientziarako bide berriak zabaltzeko eskaintzen duen aukeragatik. Bestalde, oso interesgarria da, orain arte gizakiaren jokaera asko (psikopatak, homosexualak...) genetikaren aitazkiarekin erabili direlako, eta hori zuzena ez dela erakusten du.

### OTXOA ANAIEN ISTRIPUA



Rikardo eta Javier Otxoa txirrindularien istripuak agerian jarri du auto gidariaren kultura eza. Beribilean goazenean, txirrindulariak trabatzen hartzen ditugu, eta, askotan, ziurtasun neurriak ez ditugu errespetatzen. Errepideak egiterakoan, bizikletan ibiltzeko azpiegiturak kontuan hartu beharko lirarteke, bereziki, Euskal Herrian horrenbeste zale daudelako.



LOURDES  
ROMANO  
Turismo  
aholkularia

## Koplak

### Triste bizi naiz eta

Bertso grina ditzosoa uste nuena goxoa koplak hauekin azalduko dut zein den dudaren arazoa.

Hasieran bertso bana bukaerarako zama luzeegia iruditzen zait daukadan kartzela lana.

AEDko gazteena zeinen eskola zuzena hasiera bat izan zuen ta oraindik du jarraipena.

Amorruak nagoela esan nahi nuen horrela ofiziotan zu zeu bakarrik saiatu zaitez bestela.

"Edonor da bertsolari" esan zeuen buruari desafioa bota nahi diot ezkutuko guztiari.

Inauterietan traba musika ta burrundara baina tabernan ibiliko naiz inor animetan bada.

KIKE DAPENA

## DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## Errepideko seinaleak: euskaraz bakarrik ala bietara?

**Goienkaria**  
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA:  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendieta,  
Miguel Angel Elkoroberezar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain  
SAILETAKO ARDURADUNAK  
Edu Mendibil (Kirola,  
Non Zer), Aintzane Irizar  
(Berri-Zakua),  
Goio Arana (Disseinua),  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla, Nerea  
Zallo, Mireia Larrañaga,  
Natali Martinez  
PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Aitziber Langaran  
MAKETAZIOA  
Goio Arana, Iñaki Iturbe  
TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate, Gari Bragado

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar





Astelehenean 21 urte bete zituen espetxean. Jose Mari Etxaniz (Bergara, 44 urte) giltzapean urte gehien daramatzen euskal preso da, odol deliturik ez diote leporatu eta zigorraren hiru laurdenak beteak ditu.

AINTZANE IRIZAR


**Zer moduz zaude?**

Oso ondo sentitzen naiz, zentzu guztietan. Hori ondo egotea bada, primeran nago. Horrek ez du esan nahi egoera onenean, ezta onean, gaudenik. Euren ahalegin guztiak egiten dituzte ezegonkortasuna lortzeko. Horretarako, nahiz eta gehienetan arrazoi objektiborik ez izan, espetxeko araudiaren 91.2 artikulua aplikatzen digute, lehen graduko lehen fasea edo bigarrena esaten diotenaz baliatzen dira. Horrek dakar berez izugarriko murrizketak jartzen dizkigutela edozertarako. Teorian eta praktikan espetxe-erregimen gogorenarrikoa dugu. Ondorioz, murrizketak bai, baina erregelamenduak esaten duen jarduera-programa (eskola, kultura, atseginaldiak, kirola...) ez digute aplikatzen. Lekurik ez dagoela edo "modulua" ez dagoela horretarako prestatua esaten digute. Hortaz, isolamenduan oinarritzen da erregimen hau. 14 egunetik gorako zigorrak zaintzako epailearen baimena behar du, baina gutariko askok egoera horretan urte piloa daramatzagu. Diziiplina ere gogorragoa da: adibidez, bizarra mozteko aitzurra erabili ondoren, berriz kendu egiten digute, eta gordez gero, zigorra. Eta guztia horrela.

**Posta interbenituta ei daukazu; ze bisita baimentzen dituzte, moduluan zer moduz...?**

Erregimen horren menpe gaude, baina ez menperatuak. Gutxieneko bizi baldintzak lortu eta horiei eutsi beharrean izaten gara, inposaketa gehienei aurre egin izan behar diogu, horrek dakarrenarekin: zigorrak, kondena gehiago "onura" batzuk galduz, eta abar. Posta interbenituta eta murriztuta daukat. Jaso, nahi beste jaso dezaket, nahiz eta euskarazkoak, gutxienez, 20-30 egun atxikituta izan itzulpenerako. Garai baten, 5-6 urte geroago ere jaso izan ditut euskarazko telegramak. Bestalde, astein bi gutun idaztea bakarrik baimentzen didate (barkatu nire zorrak!).

Puertoko Epaitegi Probintzian, asko kostata, lortu nuen "interbenzioa" kentzea, baina Topasera etorri nintzela berriz ipini zidaten, zaintzako epaitegian irabazi, eta berriz kendu irabazitakoa. Gainerako arrazoirik ez izan arren, berrituz interbenzioa, tregua bukatu zela eta... Legalki, hitzez hitz epaileak erabilitako argudio berberak izan ziren interbenzioa kendu eta berrituz ipintzeko. Bisitak kristalezko mintzalekuan izaten dira grabatuak. Aurrez aurrekoak ere baditugu, nolabaiteko intimitatea gordetzen dutenak. Araketa kontrola pasatzen dugu bisitariak eta guk lehenbizi, eta ondoren ere bai. Senide edo lagunendako arazo handiena da bidekomunikazio txarrak daudela. Domekan ditugun bisita normalak egiteko, 09:00etarako izan behar dira hemen; bezperatik etorri edo gau osoa autoan pasa. Aurrez aurreko bisita gehienak egubakoitzetan izaten dira, domeketan ez digute uzten bisita hauek egiten. Hortaz, ez da erraza, familiarendako, gehienbat. Tentsio une eta urduritasun asko pasatu behar ditugu. Moduluko bizimodua, goian azaldutakoaren arabera, jeneralean isolatutakoan gela izaten da. Topasen hiru "galera" ditugu, eta galera batetik ezin daiteke bestea ikusi. Bakoitzean, gehienez, 10 lagun gau-



ARTXIBOA

*Jose Mari Etxaniz*

PRESO BERGARARRA

**“Nire etorkizunaz epe motzera ez dut pentsatu ere egin nahi, bertigoa sorrarazten dit”**

## EGOERA POLITIKOA

**“Herri bezala zer nahiko genukeen eta zer galduko genukeen zalantzak daude. Beldur horiek etsaiak aplikatu egiten ditu”**

## HERRITARREN LAGUNTZA

**“Indar pertsonala kartzelari aurre egiteko beharrezkoa da, baina indar hori ematen digutenak zuek, herritarrek, zarete”**

de, eta batera, jeneralean, 5, 6 edo 7 ateratzen gaituzte. Gehienok zigortuak edo erregimen berezian gaudenez, modulu normaletan baino elkartasun handiagoa nabari da. Dena dela, txakurrez gain, preso bakoitzaren izaerak egiten du espetxea. Moduluko jendearen arabera, espetxearen espetxeak ere sortzen dira. Nolabaiteko orekaren bila ibili behar zara beti; gaixo asko ere badago (fisikoak eta psikikoak), espetxe psikiatrikoak itxi dituztenetik, gaixo asko, irteerak eman beharrean, gu bizi garen departamentu berezietan sartzen dituzte.

**Hiru laurdenak beteta, zergatik ez dizute askatasunik eman?**

Behin-behineko askatasuna emateko, laburbilduz, bete beharrezkoak hauek dira: hiru laurdenak (edo bi herenak, kode berrian) beteta izatea, portaera ona izatea eta etorkizunean bergizartzerako pronostiko positiboa izatea. Hori dela eta, betebehar objektibo bakarria betetzen dut: hiru laurden beteta izatea, hain zuzen ere. Besteok, subjektiboak izanik, euren esku gelditzen gara. Nik neuk ez dut meritu berezirik egin. Egia da denbora luzean espetxean daraman euskal preso naizela, baina hor daude ni baino egoera txarragoan daudenak, eta kaleratze eguna urrunago dutenak. Euren "meritua" koherente izatea da; eta etsai

mendekaria. Gu bahituak gara, euren esku gaude, euren "aginduetara" (bai, baina dutxi, espetxean esaten den bezala).

**Laburtuko zenituzke hogeita bat urteotan igarotako une latzak?**

Bizi oso bat bada, baina bizi asko ere badira. Erotasunari txiri egitea lortu dutenak, ez dakit ni tartean izango naizen, zoriontsu senti daitezke, espetxea pertsona desegituratzeko, menperatzeko, pentsatuta dago. Baten batek sinisten du beste zer bait? Laburtu, zelan laburtu lagun bat eskuetatik joaten zaigunean, arnasa eman ezinka, sentitzen duguna; zelan laburtu segundo bakar baten sentitzen duzun maitate dituzunak urrun daudela eta ukitzeko edo zer bait esateko, edo laztantzeko, beharra duzunean; zelanlaburtu komunikatzeko kristalaren zentimetro bakar batek bi mundu ezberdinen tarteko distantziaren aurrean sentitzen den inpotentzia; zelan laburtu barnean sentitzen diren malkoak, ezta arnasa falta danean, zure ilobak kristal horren distantzia apurtzeko ikasi duen hamargarren hitza zabaldu denean? Lagun eta senide asko ez dituzula berriz ikusiko pentsatzerakoan, sentimenduek bakarrik dute hitza, eta nik ez dakit sentimenduei hitzak ipintzen. Ezin urte horiek laburtu, ez dut ezer laburtu nahi. Eta laburtzekotan, zera esango nuke: oraindik bizirik nagoela, bizitzetik ez naizela erretiratu eta etorkizun hobean sinisten dudala. Baina, etorkizun hobe hori borrokatu beharra dagoela, inork ez digu ezer deialde emango.

**Laster aldatuko da zure egoera?**

Nire etorkizunaz epe motzera ez dut pentsatu ere egin nahi, bertigoa eta izerdia sorrarazten dit. Jakina laster alda daitekeela, askotan pentsatu izan dut (orain esan dezaket) ez nuela sekula kalea berriz ikusiko, ene buruan egiten nituen paradisu ederrak, ametsaz eta imajinazioaz baliatzen nintzen aurrera jarraitzeko. Askotan erabili izan dut imajinazioa herriko txokoak bisitatzeko, lokatza hanketan eta haizea aurpegian sentitzeko. Zortea daukazue, gainera, nire ametsetan oraindik gazte eta ederragoak zarete, begitarte alaiaren jabeak. Baina, oraindik, geru izanda ere, nire ametsen ametsa da epe motzeko etorkizun hori. Bai, gehiago jabetzen naiz hor dagoela, baina besterik gabe.

**Sentitzen duzu laguntza Euskal Herri-tik, eta, bereziki, Bergararik?**

Jakina, laguntza hori barik ez gara ezer. Nik garbi daukat goian aipatzen nuenari lotuta ez genukeela lortuko oraingo egoeran egotea. Indar pertsonala kartzelari aurre egiteko beharrezkoa da, baina indar hori ematen digutenak zuek zarete. Eta bueno..., Bergararik jaso dudana laguntza hainbeste urtean, zer esango dizuet, ezin hobea. Beste hamar urte beharko nituzke egin duten guztia eta guztie eskertzeko. Askotan, ingurukoei ez diegu hau azaltzen, lotsagatik edo gehiegi emozionatzen garelako gauza hauetaz berba egitean.

**Zelan bizi duzu Euskal Herriko egungo egoera politiko korapilotsua?**

Uff... Ez dakit norainoko korapilotsua ikusten duzun zuek. Hemendik ikusita, iruditzen zait benetako nahiak beldurraren menpe daudela. Beldur horiei diet beldur. Herri bezala zer nahiko genukeen eta zer galduko genukeen zalantza asko daude. Beldurro etsaiak aplikatu egiten ditu, modu askotan, gainera, beldur psikikoak ere baliatzen da, komunikabideek ez dute lan makala egiten zentzu horretan. Hortaz, askotan gure iritziak baino beldur horiek eragindako iritzi publikoa dirudi. Hori guztia kontuan harturik, hasi beharko ginateke benetako ubide demokratikoak lantzen, beldurrik gabe. Nor den arazoaren arazoa galdetu beharko genuke lehenbizi. Zergatik ezin dugu izan benetan izan nahi duguna? Nor ari da benetako indarkeria erabiltzen? Nor egiten dizkio etorkizunari korapiloak? Korapiloa inposaketa da, jo dezagun inposaketaren aurka. Lortuko dugu!

# la 100 lagun mendiko sorospen ikastaroan


Besaide mendizale elkarteak antolatutako ikastaroak sekulako arrakasta lortu du partaidetza aldetik

**A**rrasateko Besaide mendizale elkarteak eta Euskal Mendizale Federazioak antolatutako *Mendiko medikuntza eta sorospena* izeneko ikastaroak uste baino harrera hobea izan du. Guztira, Debagoieneko eta Euskal Herriko beste hainbat tokitatik etorritako 92 lagun ari dira ikastaroan parte hartzen.

Ikastaroari otsailaren 5ean eman zioten hasiera, eta datorren martxoaren 15era bitartean, 11 saio izango dira guztira. Besaide mendizale elkarteak orain bospasei urte egin zuen ikastaroa antolatzeko lehen ahalegina, baina orduan, gutxieneko partaide kopurua ez zutenetz bete, bertan behera geratu zen.

Aurten, berriro ere, Besaidekoak Euskal Mendizale Federazioarekin jarri ziren harremanetan, eta Federazioa hasieratik prest azaldu zen Arrasaten ikastaroa egiteko. Izan ere, urtean horrelako pare bat ikastaro antolatzen ditu federazioak Euskal Herrian.

Jon Ugarte Besaideko kidearen arabera, "gutxieneko kopurua 50 lagunekoa zen, eta gure asmo guztiak gainditu dira, 92 lagun ari direlako ikastaroan parte hartzen. Horrek erakusten du men-



Segurtasunaren zenbait alderdi landuko dituzte ikastaroan.

XABIER URZELAI

dira joaten den jendea kontzientzia dela egon daitekeen arriskuaz, kezka hori baduela. Azken baten, ikastaroaren helburua da mendira doan jendea segurtasun handiagoz ibiltzea".

Besteak beste, Ramon Garate eta Jon Armentia medikuak eta Raul Garcia psikologoa izan dira hizlari orain arte. Ricardo Arregi mediku ospetsuak ere hotzak eragindako patologiak jardungo du martxoaren 9an. Bien bitartean, astelehenean, hilak 26, Kepa Lizarraga medikuak *Giza gorp-*

*tza eta ingurugiro faktoreak* izeneko hitzaldia egingo du, eta eguaztenean, hilak 28, Xabier Garaioak *Altitudearen osasun alderdiak: espedizioak eta trekkingak* gaia jorratuko du. Hitzaldi guztiak San Viator Txikiko aretoan dira, 19:00etan, eta ikastaroaren amaierarako Hautes Pyrenees sorospen talde entzute-sua gonbidatu dute.

Ikastaroan parte hartzen dutenei azterketa egingo diete, eta diploma banaketa martxoaren 15ean bertan egingo dute.


SERGIO MAIZTEGI

**"Mendian sustorik ez izateko, kontzeptu batzuk argi izatea ondo etorriko zaigu"**

**S**orospen ikastaroaren barruan, Sergio Maiztegi oñatiarrak *Mendiko kirolekarako prestakuntza fisikoa* izeneko hitzaldia egin zuen eguaztenean. Sergioren ustetan, "prestakuntza fisiko egokia beharrezkoa da istripuak edo bihotzeko arazoak saihesteko. Esate baterako, badira kolesterolarekin edo gizentasunarekin arazoak dituzten mendizaleak, eta horiek arreta berezia eskaini behar diote prestakuntza fisikoari".

Maiztegi SHERE ikasketak egin ditu, eta eguaztenean gogora ekarri zuenez, "lehen mendira ondo pasatzera joaten zen jendea, baina gaur egun, lehiaketak sartu dira tartean, kirol eskalada dela, eski alpinoa edo mendietan egiten diren lasterketak, esaterako. Eta aisialdia eta lehiaketak desberdintzen jakin behar du jendeak. Mendiaz gozatzeko egoera fisiko onean egotea funtsezkoa da, eta alde horretatik, behintzat, jendea geroago eta kontzientziatuagoa dagoela uste dut".

Mendira goazenean hartzen ditugun segurtasun neurriez zera dio: "Gure lagunekin ikastera ohituta gaude, eta jendeak ez dauka horrelako ikastaroetara joateko ohiturarik. Formazio aldetik asko hobe daiteke. Azken baten, gaur egun, Pirinioetara edozein astebukaeratan joateko aukera daukagu, eta kontzeptu batzuk argi izatea beti ere ondo etorriko zaigu, mendian sustorik ez izateko. Horrelako ikastaroetan faltan nabari dudan gauza bakarra zera da: praktikarako aukera askorik ematen ez dutela".



XABIER URZELAI

## Erik Martin, Euskadiko karate txapelalduna

Arrasatearra senior mailako 70 kilotik beherako kategorian nagusitu zen domekan Bilbon

**E**rik Martin arrasatearrak Euskadiko karate txapelketa irabazi zuen domekan Bilbon, senior mailako 70 kilotik beherako kategorian. Joan den denboraldian lesionatuta izan ondoren, Martinek ez zuen espero txapelketa irabaztea.

Karate adituen arabera, Erik Martinek karatean aritzeko ezagarririk bikainak ditu, eta hala erakutsi zuen domekan Bilbon jokatutako Euskadiko Karate Txapelketan. Martinek 22 urte ditu, eta bost urterekin hasi zen karatea praktikatzeko, osaba batek animatuta. Orduetik hona, maila bikaina erakutsi du: 1997an eta 1998an junior mailako Euskadiko txapelalduna izan zen, eta 98an eta 99an 3. postuan geratu zen senior mailan. Joan den denboraldian, aldiz, ez zuen parte hartzerik izan Euskadiko txapelketan, sorbaldako lesio bat medio.

Erik Martin Arrasateko Saioa karate taldean ari da, Iñaki Muñoz

eta gerriko beltza (lehenbiziko *Dan-a*) dauka. Iazko urte osoa ia geldirik eman zuen lepaustuak lesio baten erruz, eta, bere hitzetan, ez zuen espero aurten Euskadiko txapela eskuratzea: "Denbora luzea neraman lehiatzeke, eta gogor entrenatu naizen arren, niretako sorpresa atsegina izan da txapelketa hori irabaztea. Lan txukuna egitearekin nahikoa nuen, baina...".

Erik Martinek 70 kilotik beherako kategorian lortu zuen txapelaldunari zegokion garaikurra.


**"Aurreko denboraldian ez nuen lehiatzerik izan sorbaldako lesio bategatik, eta niretako sorpresa atsegina izan da senior mailako Euskadiko txapela irabaztea"**

1,72 metroko altuera eta 69 kiloko pisua du. Domekan, Txurdinagan izandako txapelketan 30 bat karateka aritu ziren lehiaren kategorian. Erik Martinek lau borrokaldira gainditu behar izan zituen gailentzeko.

Orain, Espainiako txapelketan parte hartzea da bere helburua. Angel Daza Euskadiko hautatzaileak aspalditik ezagutzen du Martin, junior mailan Espainiako txapelketan bi aldiz izan delako karateka arrasatearra, hiru garren eta laugarren postuak lortu zituela.

Espainiako txapelketa martxoan jokatuko dute ziurrenik, Oviedon, eta Martinek aukera handiak ditu Euskadiko taldearekin esku hartzeko. Aurretik, Daza hautatzaileak Bilbon egingo duten kontzentrazio batera deituko ditu Euskadiko taldea ordezkatzeko duten karatekak.

Bien bitartean, Martinek Arrasaten entrenatzen jarraituko du. Lana eta kirola tartekatzen duenez, karatean aritzeko gura beste denbora izateko faltan sumatzen du.



Erik Martin

XABIER URZELAI

Podiuma

# Fernando Zufiria | ARRASATE ATLETIKO TALDEA |


Lorenzo Avila, Jonathan Perez eta Martin Davilarekin batera, Arrasate Atletiko Taldeko entrenatzailea da Fernando Zufiria 50 urteko arrasatearra. Juventud deportiva izeneko taldeari errelebua hartuz, 1987an sortu zen taldea, eta ordutik hona, maila ona erakutsi du han eta hemen jokatuak txapelketetan. Gaur egun, Debagoienerako federatutako 45 lagun ari dira.

**Pista estaliko denboraldia amaituta, zein da taldearen balantzea?**

Gure helburuetako bat bete da, izan ere, Jonathan Perezek 4,50 m-ko marka lortu du pertikako jauzian. Horrek sekulako garrantzia dauka guretako, pertikako espezialitatean oso jende gutxi dabilakoa. Eta gure taldean baldintza eskasak dira, ez dugu eta ez atletismoko pistarik, ez pertikarik eta ezta koltxonetarik ere. Perezek bere markarik onena egin du. Aire librean, 4,70 m-ko marka eskatuko diote Espainiako txapelketarako.

Bestalde, Unai Sarabiak 22 segundo eta 42 ehuneko egin ditu 200 metroetan, eta aire libreko Espainiako txapelketarako sailkatzeko aukera handiak izango ditu. Biak gazteak dira (19 urte dituzte), eta dagoeneko, Jonathan Perez Realak fitxatu du. Unai Sarabia ere Realean arituko da ziurrenik datorren denboraldian.

Era berean, Angel Ribera (18 urte) 200 eta 300 metroetako probetan laugarrena izan da, eta 5. eta



Zufiria 1970eko hamarkadatik ari da entrenatzaile.

**“Urte asko daramatzagu atletismo pista bat aldarrikatzen, eta oso baldintza eskasetan entrenatzen ari gara oraindik ere”**

**“Euskadiko txapelketan, joan den urteko udan, lehen mailari eustea lortu genuen. Aurten, zaila izango dugu”**

6. postu asko lortu genituen Anoetan.

**Zelan da posible pistarik gabeko talde batek horrelako emaitzak lortzea?**

Urte asko daramatzagu atletismoko pista bat aldarrikatzen, eta behin eta berrero (batez ere, hauteskunde garaian) agindu dituzten arren, pista barik gaudere oraindik. Zelanbait mol-

datu izan gara orain arte. Gaur egun, Arrasaten (gimnasioan, Atxabalpeko errugbi zelaian eta errepi-dean) eta Donostia eta Elgoibarreko pistetan entrenatzen gara. Badirudi bi urte barru-edo, Mojategin (Maxieroski atzealdean) atletismo pista egingo dutela. Ea asmo hori egia bihurtzen den behingoz..., oso baldintza eskasetan entrena-

tzen ari gara eta.

**Hala ere, Euskadiko lehen mailan ari zarete.**

Hala da. Iaz seigarren sailkatu ginen udako aire libreko Euskadiko txapelketan, Real Sociedad, Pamploña, UPV-EHU, Gasteizko Avia eta Atletico San Sebastian taldeen atzetik. Aurten, zaila izango dugu lehen mailari eustea, baina saiatuko gara.

**Zein espezialitateetan zabilzate ondoen?**

Distantzia motzeko lasterketetan, jauzietan eta jaurtiketetan, beharbada. Fondoko probetan, berriz, hutsunea daukagu.

**Eta Arrasate Atletiko Taldeko harrobia, zer moduz?**

Datorren denboraldian kadete mailan ibiliko diren gaztetxoekin ari gara lanean, eta pozik gaude jaso dugun erantzunarekin. Gaztetxoei, jeneralean, atletismoan jardutea gustatzen zaie, baina 18-20 urterekin askok utzi egiten dute, ikasketengatik, batez ere. Baina harrobia lanzen jarraitzen dugu, beterranoek errelebua behar dute eta. Taldean, zoritxarrez, 20-30 urte bitarteko atleta gutxi dago.

**Nagusien artean, zeintzuk nabarmenduko zenituzke?**

Guztiak dute meritua horrenbeste urtean atletismoan jarraitzeagatik, oso sakrifikatua delako.


**Zelan baloratzen duzu eskoletan atletismoaren gainean egiten duten lana?**

Lehen baino arreta handiagoa eskaintzen diote atletismoari, eta gaztetxoek atletismoa praktikatzeko aukera gehiago dituzte.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

# Andoni Zubizarreta Futbolaria



Zubizarreta da ligako partidu gehien jokatu duen jokalaria.

**Athletic, Bartzelona eta Valentzia taldeetan**


**jokatu zuen, 1998an erretiratu zen arte.**

**Munduko Txapelketa lau alditan jokatu zuen.**


**D**uda barik, euskal futbolaria eman duen atezainik onenetakoa dugu Zubizarreta. UDA taldean lehen urratsak eman ondoren, 16 urterekin Alavesek fitxatu zuen, eta handik Athleticera joan zen. 1980-81 denboraldiko azken partiduak Bilbao Athleticean jokatu zituen, Clementeren aginduetara, eta hurrengo denboraldian, Clementek berak lehen mailan debutatzeko aukera eman zion, Madrilen, Atletico de Madril taldearen aurka (2-0). Barakaldoko entrenatzaileak beti izan du konfiantza Zubirengan, bai Athleticean eta baita Espainiako selekzioan ere. Athleticekin, bi liga, kopa bat eta superkopa bat irabazi zituen. Iribarrekin, txikitako idoloarekin, batera ibili zen, atezainen entrenatzailea zen-eta zarauztarra: “Asko ikasi nuen berarekin, eta amets bat gauzatzea izan zen lehen mailara iristea”, dio Zubik. 1986an, Bartzelonak fitxatu zuen: “Venables entrenatzaileak eman zuen ni fitxatzeko agindua”, gogoratzen du Zubik. Barçan, besteak beste, lau liga, bi kopa eta erreropa bat irabazi zituen, eta baita talde katalanak hainbeste urtean amestutako Europako Kopa ere, 92an, Londresen.

Hala ere, Bartzelonan emandako azken urtea ez zen goxoa izan, eta Cruyffek Zubiri kontratua ez berritzea erabaki zuen. Horren ondorioz, erretiratu aurreko azken bi denboraldiak Valentzian egin zituen. Frantziako mundialaren ostean erretiratu zen, 98an: “Ziklo baten amaiera zela pentsatu nuen, erretiratzeko momentu egokia”, dio. Espainiako selekzioarekin (126) eta ligan (622) partidu gehien jokatu dituen jokalaria da. Euskadirekin, hiru aldiz jokatu zuen. Egun, Bartzelonan bizi da, eta, Espainiako Federazioarentako lan egiteaz gain, Sevillako estadio berriko kontseilaria eta, era berean, taldeen kudeaketaz arduratzen den *Make a team* enpresako partaidea dugu. / E.M.

**“Amets bat gauzatzea izan zen lehen mailara iristea. Eta erretiratzeko orduan, ziklo baten amaiera zela pentsatu nuen”**



Andoni Zubizarreta • Aretxabaleta • 1961



# Nire Pronostikoa

JOSE LUIS EZKURRA/ Mondra taldeko presidentea

**M**omentuan, Alustiza-Beloki bikotea da eskuz binakako txapelketako indartsuena. Zapatuan ere ez dut uste arazorik izango dutenik Olaizola eta Goñi menderatzeko. Beloki primeran ari da jokatzeko, eta Alustiza tantorik galtzen ez duten horietakoa da. Zezeaga

laguna dut, eta berak eta Titinek ere erraz irabaziko dute domekako partidua. Futboleant, gauzak normal joanda, Barçak eta Athleticek irabaziko dute, baina Realen intereserako, eta Athleticalea izan arren, binakako berdinketa jarri dut bietan, euskal futbolaren alde egiteko.

## Astebukaera honetako partiduak

<b>A/</b>	Alustiza-Beloki	22	Olaizola I-Goñi III	13
<b>B/</b>	Titin III-Zezeaga	22	Unanue-Ruiz	15
<b>C/</b>	Bartzelona	2	Reala	2
<b>D/</b>	Athletic	2	Numancia	2

Saio berezia GOITBn

# Aretxabaletako Aratusteak

Eguna: **Astelehena, otsailak 26**

Ordua: **21:25 (Goienasport saioa bukatu ostean)**  
**Errepikapena (martitzena, 27, 13:25ean)**

Aurkezleak: **Kepa Errasti eta Iraia Aginagalde**

Aretxabaletako jai giroa  
zure telebistan!



ZENBAKI AHOLKULARITZA • CIM HIZKUNTZAK • EMBALAJES GARCIA • PEÑAKOBA AUTO ESKOLA • ARGÍ PLÁSTIC LEIHOAK • VIT SEC ARROPA GARBIKETA • DUKIENA JATETXEA  
MAPFRE ASEGURUAK • EHUNE • IRU ZANGITU MARGOAK • HOTEL MONDRAGON • EKOS INMOBILIARIA • BEREYA ELEKTRIZITATEA • ALMACENES ARRASATE ELEKTRATRESNAK  
LOS VAQUEROS • GANBRINUS • BASTER ALDE JATETXEA • BIKAIN AKADEMIA • EZKUTU




# Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko otsailaren 23a

Kultura  
eta  
Aisialdia



Otsailaren 23tik  
martxoaren 2ra



## ARATUSTEAK

**E**skoriatzarrek hartu zuten Eguenean aratusteetako trenak, eta bailarako herri guztietan geratuko da aratusteek iraungo duten astebete eskasean. Elgetarrek barikuan izango dute mozorrotzeko aukera; Leintz Gatzagan eta Aramaion zapatua izango da egun handia. Domekan, osterak, Aretxabaleta izango du geltoki trenak, goizean goiz hasita izango da-eta festa egiteko aukera. Astelehenean, aste akaberrako ibiliak trankiltze aldera, eguna lasai hartu eta martitzenean beste hiru geltoki izango ditu bailarako herri jendetsuenetan. Arrasate, Bergara eta Oñatin martitzena da mozorrotzeko egunik aproposena, nahiz eta hiruretan, udalen ekimenez, egun baten baino gehiagotan ospatuko den aratuste eguna. /14

IBAN ARANTZABAL

Jaiak | Aratusteak

# Haragia utzi baino lehen eutsi, eta viva la Pepa

BARIKUAN HASIKO DIRA ARATUSTEAK BAILARAN, ETA MARTITZENERA ARTE IRAUNGO DUTE

Ikork ez dezala pentsatu aratusteak gaurko kontuak direnik. Lehen, kristautasunak ezarritako ohituren arabera, Garizumak irauten duen 40 egunean ezin zenez okelarik jan, baraualdi hori iritsi baino lehenago egiten ziren jai egunei deitzen zitzairen aratusteak, hau da, haragi uzteak. Aratuste egunetan parranda galantak bai, baina behin horiek pasatuta, Garizuma zorrotz jarraitzen zuten lehen. Eguaztenean Hausterre eta, barikuero bijilia egunak ziren. Garizuma garaian, gainera, debekatuta zeuden dantzaldiak eta baita "piñata" eta antzerakoak ere.

Egun, askotxo aldatu dira kontuak eta jendea ospakizun horren zain egoten da, erlijio kontuak baztertu xamar lagata.

Mozorroz beteko dira bailarako kaleak barikuan, zapatuan, domekan eta martitzenean.



## Egubakoitza, 23 ELGETA

Elgetan, martitzena izan da asko ez dala arte egun handia. Oraindik gogoa dugu martitzenetan ateratzen zen koadrilaren bat: Tartufo, Tirapu... giro ederreko jendea batzen zen. Orain, ostera, eta alboko herrietan zapatu, domeka eta martitzenak badira ere jendea festara batzen dutenak, Elgetan barikua da eguna. Ohitura horrek hiruzpalau urte baino ez ditu. Gaztetxekoek proposatu zuten herri guztia barikuan moztrotzea, eta harrera ona izan zuen. Aurten, eskolako umeekin arratsaldean hasi eta barruak gazte sentitzen dituztenekin jarraituta, 24 orduko jai egungo da, bai egunez eta bai gauzez ere. Arratsaldean umeen jolasak izango dira, eta iluntzean ez da girorik faltako kalean. Gauean, moztrotze lehiaketaz gain, kontzertua ere izango da gaztetxean Gasteizko Su tam tam taldearekin. Zure moztrotze pixka bat mugitu nahi baduzu, 23:00etan duzu hitzordua.

## Zapatua, 24 LEINTZ GATZAGA eta ARAMAIO

Aramaion, moztrotze lehiaketa iragarri dute zapatu arratsalderako. 17:30etan hasi eta kalejiraren ostean, txokolatada izango da. Leintz Gatzagan, ostera, herri afaria izango da zapatu gauean.

## Domeka, 25 ARETXABALETA

Aretxabaleta aldean txino dantza usadio zaharra da. Aratuste-domekan, eguerdiko ordu batean plazatik irteten da, eta Durana eta Mitarte kaleak zeharkatu ondoren, berririo ere plazan izaten du amaiera. Batzuen ustez, antzinako ikazkinak menditik jaisten zirenean jaiotzen zuten usadioa, eta horren lekuko lirake dantzatzeko jartzen den linozko soineko luzea eta aurpegia beltzez margotzeko ohitura. Beste batzuek, ostera, txino dantza txerriekin lotzen dute, aspaldi baten, txino esaten ziotelako txerri aporri bailaran.

Zenbait agiritan agertzen denez, 1934. urtera arte Santa Ageda mutilek dantza egiten zuten. Gero, berrogei bat urtez egon zen desagertua. 1976an Loramendi dantza taldeak berreskuratu zuen ohitura hori. Jakin badakigu lehen marti-

zitzenetan izaten zela erakustaldia; gaur egun, berriz, domekan egiten da. Aurten, Santa Ageda neska-mutilek 13:00etan eskainiko dute saioa. Hala ere, jai goizeko hamarretan hasiko da, eta 19:00etatik aurrera, dantzak egin ostean, moztrotze lehiaketako sariak banatuko dituzte. Txinoaren hiletara joan nahi duzuenok, badakizue, lutuz jantzi, eta kandela eskuan duzuela, martitzenean, 20:30ean, herri afarira.

## Martitzena, 27 ARRASATE, BERGARA eta OÑATI

Lehen, moztrotuta jende ugari irteten zen Arrasaten. Egun batzuk

lehenago, gainera, neska-mutikoak aberatsen etxeetara joaten ziren kapela zaharrak-eta eskatzera. Eguen zuri egunean hasten ziren aratusteak. Arratsaldean zezena izaten zen, eta Cerrajera-ko langile guztiak torero bihurtzen ziren egun batez. Gerora, martitzena indartu zen, eta izango dira ia 100 urte horrela dela. Sokamuturrak, hala ere, bazuen martitzenetan lekua, txistularien kalejira eta gero. Arratsaldean aurrekua dantzatzen zuten, lehendabizi neska-mutikoendako eta gero nagusiagoendako. Horren ostean, herriko plazan eta pilotalekuan dantzaldia egiten zen.

Martitzenetan, orain gertatzen den kontrara, inor ez zen lanera joaten, eta elurra egin arren ere, jendea kalera irteten zen, moztrotuta. Agustin Azkoagari irakurria diogu zelan behin "Musakolako lagun talde bat gurdi eta guzti motxaile jantzita azaldu zen herrian, eta astoarekin udaletxeko balkoi-

ra irteten ziren". Gero, 1993an, SUGO Ceko ordezkari batzuk batu eta aratusteei indarra emateko asmoz aratuste-martitzean ekintzak antolatzea erabaki zuten.

Arrasaten 1960an, Francoren garaian, domekan musika jartzea lortu zen. Inguruko herrietan Arrasateko oso irudi txarra eman zuelako esan zen orduan. Beti bezala jaiak martitzenean egingo da Arrasaten.

Bergaran orain dela 20 urte ez zegoen ezer, apenas moztrotzen zen jendea. Ez moztrotze horretan Francok ere izango zuen eragina, izan ere, Francoren denboran galarazita egon ziren honelako jaiak. Kalea hartzen zutenak espontaneoak izaten ziren eta koadrila bakan batzuk ziren aratuste-martitzenari jai giroa erantsen ziotenak.

Aranzadik eta baita istitutua ere garrantzi handia izan zuten. Ikasitola mugimendua igarri-igarrian izaten zen egun horietan. Moztrotze giroa beti gustatu izan zaie umeei, eta oraindik ere eskolak indar handia dute egun horiek girotzerakoan. Elkarrekin-eta ere irteten ziren hainbat koadrila, orduan ere, martitzena zen egun garrantzitsua. Poliki-poliki oraingo hamarkadan udala hasi zen jai antolatzen. Udalaren esku hartze horrek jaiak gehiago ekarri ditu, eta tartean, dantzaldiak, kalejirak, kartel lehiaketak eta gainerakoak aratusteen ezaugarri bihurtu dira. Orain, batez ere, zapatu eta martitzenetan egoten da jai giroa domekan ere zerbait badagoen arren. Martitzena gorde da, eta arratsaldean eskolako umeak moztrotuta irteten dira, oraindik ere, edadetuak diren koadrila batzuekin batera. Bestalde, Aranzadikoak egubakoitzean aterako dira.

Berez, ez da egon ohitura hain dirik Oñati aldean. Ez dago pertsonaia berezirik ezta trajeririk ere. Lantz-eko ihauteriak-eta dantzak dituzte Oñatz dantza taldekoek, hala ere, orain parranda egunetara makurtzen da jai gehienbat. 1895-96 urte inguruan bertso batzuk aurkitu zituzten, ikasle denboran bateron batek idatziak, baina motelak eta txarrak dira. 20 urte geroago ere agertu da testuren bat Oñati aldean, baina gipuzkeraz idatziak. Primo de Riveraren garaian debekua ere bizi izan zen; hala ere, egunegizenean txorizoa, peillak, torradak... afaria egiten zen gerra aurrera, eta orduko erretratu batzuk ere gorde dituzte, Oñatin elizak indar handia izan badu ere. Trantsizioa eta gero, martitzenetan egiten da jai, eta moztrotze eguna ere hurbil izaten da.

IBAN ARANTZABAL

Kronika | Lausardi Koru Sinfonikoa Bergarako San Pedro elizan

# Debagoieneko abesbatza jende aurrean

**Noiz:** Zapatuan, 20:00etan. **Non:** Bergarako San Pedro elizan. **Nor:** Lausardi Koru Sinfonikoa (Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goibobalu). **Bakarlariak:** Aitor olea (organua), Jon Etxabe (tenorea), Jesus Maria Garcia Arejula (baritonoa), Ainara Moreno (arpa), Oihan Vega (perkutsioa), Maria Jesus Ugaldede (sopranoa) eta David Azurza (kontratenorea). **Zuzendariak:** David Azurza eta Iñaki Maidagan. **Ikusleak:** San Pedroko eserlekuak bete egin ziren. Emanaldia korutik, organoaren ondoan, eskaini zuten eta bideo pantaila bat jarri zuten aldaire inguruan bertaratuek ikusteko.

Joan den zapatuan, Bergarako San Pedro elizan, sortu berri den Lausardi Koru Sinfonikoa entzuteko aukera izan genuen. Kontzertu horrekin, bukaera eman zaio aurtengo Azkoitia-Bergara Organo Erromantikoaren nazioarteko jaialdiari.

Aukeratutako programa oso interesgarria izan zen: John Stainer konpositore ingelesaren *The Crucifixion* eta Leonard Bernsteinen *Chichester Psalms*. Stainerren obra oso ezaguna da Ingalaterra koruen errepertorioan, eta urte-aste Santutan abesten dute hainbat eliza garrantzitsutan.

Entzun genuen bertsoia oso dinamikotzat joenezake, kontuan hartuta musika horren arriskua geldotasuna dela. Koruaren fraseoak eta dinamikak zainduta zeuden, eta koruaren soinua primerakoa zen.

Gizonek abestutako bi zati nabarmenduko nituzke nik: *I thirst* eta *It is finished*. Musika oso ona da, eta gainera, eraginkorra: entzulearen emozioa bilatzen du, ia modu zinematografikoan. Abesbatza osoak kantatzen zuenean pisudun koru bat entzun genuen, eta kontraste bezala, koraletan, emakumeen soinubakar arinak. Jesus



Lausardik San Pedro elizako korutik eskaini zuen emanaldia.

ENEKO AZKARATE

Maria Garcia de Arejulak, baritonoa, primerakoa, oso ahots biribila dauka, betea. Jon Etxabe, tenorea, errezitazaila papererako ahots aproposa, berezia. Stoltz organoan Aitor Olea ederto moldatu zen, maila handiko musikaria da.

Zuzendari lanetan, lehenengo obran, David Azurza aritu zen, Bergarako Orfeoiko zuzendaria. Eskaini zigun bertsoia, esan bezala, dinamikoa eta zaindua. Zuzendarietako bat aipatu dudanez, ildo beretik jarraituko dut, Arrasateko Goibobaluko zuzendari Iñaki Maidaganeekin. *Chichester Psalm* obraren bertsoia oso argia izan zen, hau da, musika zail hori ondo ulertua eta argi adierazita aurkeztu zigun. Bi zuzendariak oso ezberdinak

dira, eta hori koruarendako ona da, aniztasun horrek koruari malgutasuna ematen dio eta.

Bernstein-en *Chichester Psalm* obra modernoa da, 1965koa, eta konpositore horren beste obra askotan erabiltzen diren errekursoak erabiltzen ditu: erritmo aldaketak eta harmonia berritzailea. Obra hori, hasiera baten, koru eta orkestrarako idatzi zuen konpositore amerikarrak, eta hori asko igartzen da, zati batzuetan "bertsio" bat entzuten ari garen inpresioa handiegia da. Musika primerakoa da, eta koruarendako, zaila. *Chichester Psalm* honetan testua hebreriarrez dago, eta hiru zatitan Itun Zaharreko salmoen pasarteak musikatzen dira. Lan honek

ere kontraste handiak dauzka; hasierako akorde zaratsuetatik hasi eta koruaren fuga bizkor eta konplikatuak arte. Bigarren zatian obraren pasarte onenarikoa dago *Adonai*, kontratenore eta emakumeen arteko elkarrizketa (Azurza, bikain, Ainara Moreno harpa jotzailearekin batera). Bakarlariak, korua, organoa, harpa, perkusioa..., oso ondo.

Obraren azken konpasak zatirik onena dira, organo barik, koruak zera abesten du: *Bai eder dela, bai gozo, senideak elkaturik bizitzea*.

Lausardiko ausartei, ongi etorri! Eta irakurle guztiei; agur t' erdi.

IÑIGO ALBERDI AMASORRAIN

Nire aukera

## Mila Elortza Angiozarko liburutegiko arduraduna

Hizkuntza guztietara itzulitako liburu bat, euskarara barne: Antoine de Saint-Exupéryren *Printze txikia* (1942). Liburuxka txiki hau haur literaturako idazlan klasikoa da, mundua eta bizitza deskubrituko dituen haur baten kontakizuna. Sinbolismoz beteriko pertsonaia batzuek baliatuz, haurra giza izaera ezagutzera eta salatza eramango du inimiziaz bidaiak, eta bukaeran haurtzarora itzuliko da, helduen munduaz desilusionatuta. Ez da liburu erraza, baina egokia da helduekin batera irakurtzeko.



Idazleak hitzaurrean dioen bezala "Pertsona nagusi hori izan delako noizbait txiki, noizbait mutil koxkor izan zenari berari eskainiko diot guztiok lehenik haur izan garelako".

## 'PRINTZE TXIKIA' Antoine de Saint-Exupéry



IBAN ARANTZABAL

# Kaleratu berriak

Iban Arantzabal


LIBURUA | Eleberria



**KONTAKIZUNAK**  
Edgar Allan Poe  
Ibaizabal  
Koro Navarrok  
itzulia 191

Jane Austinen *Harrotasuna eta Jurrejuzkuak* irakurri nuen literatura unibertsala deritzon sailean. Izugarri ona izateaz gain, txukun itzuliak zeuden testuak, eta horrek animatu ninduen harrezkerotera atera diren hainbat itzulpen irakurtzera zein lehendik ateratakoetan erreparatzera. Itzulpen gintza oso kontuan hartzeko artea dugu, testu sorketatik datozen testuek eragiten duten plazeraren antzekoa sortarazten du eta. Oraingo hau atzerrian izena hartu zuen lehenengo idazlearen itzulpena da.

LIBURUA | Mitologia



**EUSKAL MITOLOGIA**  
Jose Luis Arriaga  
GERO euskal liburuak  
142 lerro

Zer dakigu ziur mitologiak? Teologia ikasketak eginak dituen Jose Luis Arriaga antzerako galderei erantzuna topatzen saiatu da liburuan. Ezer ziurrik idaztea oso zaila den arren, antrebentziak idatzi du horrenbeste urtean Alemaniako institutu baten irakasle aritu zen kazetariak. Mitoa sinbolismoa da, askotarikoa izan daitekena eta irudiz bete egon. Batzuk mitoa, erlijioa edo sakraltasuna beti lotuta ikusten dituzte, beste batzuk, berriz, kristautasunak lehen izan ziren mito guztiei beren sakratu esanahia galdu eragin ziela...

LIBURUA | Ikerketa lana



**ANTZUOLAKO LARRU ONTZEAK**  
Antxon Agirren  
Sorondo  
Antzuolako Udala  
111 orrialde

Antzuolan larrugintza oso garrantzitsua izan zen. Liburuaren gaia izenburuak berak argi uzten badigu ere, tartean, herri honen historia ezagutzeko aukera ematen du. Ikerketa-lan honetan garai bakoitzean erabilitako prozeduren azterketa teknikoak egin du. Munduko larrugintzaren gaineko aipamena ere badakar, eta amaieran, jarduera horren kokapenaren gaineko azken joerak azaltzen dizkigu egileak. Ekonomian eragin handia izandako lantokiez dihardu, eta hor aldetik, behintzat, interesgarria da.

# Otsaila: 23-2

Edu Mendibil | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## Antzerkia

### BERGARA

> **Golden Apple Quartet** taldearen *Sin cuatro instrumentos* ikuskizuna domekan, hilak 25, Amaia antzokian, 19:30ean.

### BERGARA

> **Txalo** taldearen *Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona* antzezlanak datorren egubakoitzean, hilak 2, Novedades aretoan, 22:30ean.

### ELORRIO

> **Teatro meridional** taldearen *Qfwfq. Una historia del universo* egubakoitzean, hilak 23, Arriola aretoan, 22:30ean.

> **Markeliñe** taldearen *Manbru* umeentzako antzerkia domekan, hilak 25, Arriola aretoan, 17:00etan.

## Erakusketak

### ARRASATE

> **Jose Zufurre** margolari bizkaitarraren lanak Toki-Eder kafetegian, otsailaren bukaera arte.

> **Diana Orbe** margolariaren erakusketa izango da Toki-Eder kafetegian, martxoan.

> **Iñaki Bruñaren** margo eta eskultura erakusketa Udalako Larri- netxe jatetxean, martxora arte.

### BERGARA

> **Beatriz Perez** eta **Miren Etxeberriaren** olioak Nahikari tabernan. Biak ere Edurne Erañaren ikasleak dira.

### OÑATI

> **Euskal Herria eta dinosauriak** Oñatiko Natura eskolan, Olakua auzoan, martxoaren 4a bitartean. Aste barruan, 18:00etatik 20:30era, eta zapatu eta domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

> **Natura argazkitan** Olakua auzoko Bidaurreta dorretxean, otsailaren 25a arte. Zapatu eta domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

### BEASAIN

> **Benito Cantero** bergararraren argazki erakusketa Usurbe antzokiko erakusketa aretoan, otsailaren 25a arte. Aste barruan, 19:00eta-

tik 21:00etara, eta astebukaeran, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

### DURANGO

> **Juan Jose Altuna Akizu** bergararraren margolan erakusketa Durangoko Arte eta Historia museoan (San Agustinalde, 16), otsailaren 25a arte.

## Musika

### ARETXABAETA

> **Serial Number** taldea egubakoitzean, hilak 23, gaztetxean, 23:00etan. Gero, **Kir-in** disko jar-tzailearen saioa.

### BERGARA

> **Udal Musika Banda** eta **Bergarako Orkestra Sinfonikoa** egubakoitzean, hilak 23, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

> **Fromheadtoe** eta **Zea Mays** taldeen kontzertua egubakoitzean, hilak 23, Jam aretoan, 22:00etan.

> **Tristeza** taldearen kontzertua eguenean, martxoak 1, Jam aretoan, 22:30ean.

> **Mikel Urdangarin** datorren domekan, martxoak 3, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

### ELGETA

> **Su Tam Tam** taldea egubakoitzean, hilak 23 gaztetxean, 23:00etan.

### ELGOIBAR

> **Expresion sonora** taldea egubakoitzean, hilak 23, herriko antzokian, 22:30ean.

## Lehiaketak

### ARRASATE

> **Arte plastikoaren III. lehiaketa** deitu du Arrasateko Gure Leku tabernak. 125.000 pezetako saria emango da. Lanak ondoko helbidera bidali beharko dira, otsailaren 28a baino lehen: Gure Leku taberna. Zarugalde, 17-behea. 20500. Arrasate.

> **Motorren III. kontzentrazioko marrazki lehiaketa**, Arrasateko Motozale Elkarteak deituta. Beharrezkoa izango da asto eta moto bat agertzea marrazkietan. Marrazkiak elkartearen egoitzan aurkeztu beharko dira martxoaren

2a baino lehen. Irabazleak 10.000 pezeta eta oparia jasoko ditu.

### BERGARA

> **XVI. literatura lehiaketa**. Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek esku har dezake. Adinaren arabera, bost talde egingo dira. Lan guztiak argitaragabek eta euskaraz idatziak izan beharko dira. Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea apirilaren 25ean bukatuko da, eta sariak ekainaren 9an banatuko dira. Argibide gehiago udaleko euskara zerbitzuan, 943 77 91 66 zenbakian.

## Ikastaroak

### ARETXABAETA

> **Areto dantzen ikastaroa**, Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak antolatuta. Egubakoitzean izango da, 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izen-ematea eta argibideak Loramendi elkartearen edo 943 77 09 70 telefonoan.

> **Eskulan eta bainika ikastaroak**, Loramendi euskara elkarteak antolatuta. Eskulan ikastaroa martitzenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Bainikakoa, ostera, eguaztenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Izena ematea Loramendi elkartearen bertan.

### ARRASATE

> **Masaje bateratua** ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak. Zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.

> **Alboka** eta **txalaparta** ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak. Albokakoa San Juanak bitartean emango da, zapatuetan, Arrasate Musikalen, goizez. Txalapartakoa, aldiz, astelehen eta egubakoitzean izango da, Musakolako saloian, arratsaldean. Argibide gehiago 943 77 00 65 telefono zenbakian.

### Literatura tailerra

Monterronen, martxoaren 15etik apirilaren 5era, eguenean, 18:00etatik 20:30era. Irakaslea Jon Alonso izango da. Izena ematea: 3.000 pezeta (2.000 pezeta ikasle eta langabetuendako). Argibideak 943 77 00 65 telefonoan.

> **Euskal dantzen** ikastaroa. 10 urtetik gorakoendako. Martxoaren 2tik San Juanak bitartean, egubakoitzean, 19:00etatik 20:30era. Matrikula: 1.000 pezeta. Argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.

> **Zeramika** ikastaroa martitzen eta eguenean, Laixe zeramika elkartearen (Nafarroa etorbidea, 23), 19:00etatik 21:00etara, ekainaren 21era arte. Irakaslea Ainhoa Arregi izango da. Prezioa: 7.500 pezeta (6.500, ikasle eta

langabetuendako). Izena ematea Arrasateko Gazte Bulegoan.

## Deiak

### ARRASATE

> **El Salvadorri laguntza** emateko, kontua zabaldu du Medicus Mundi erakundeak: BSCH 0049 0001 59 2810016616.

> **Indiarako laguntza** emateko, kontuak zabaldu ditu Medicus Mundi erakundeak Euskadiko Kutxan, Kutxan eta BSCH banketxean.

> **Txatxilipurdik** martxoaren 3an Gasteizera izotzetan patinatzerara joateko irteera antolatu du. Izena ematea Txatxilipurdiko egoitzan, otsailaren 28a arte zabalik. Argibideak: 943 79 54 46.

> **Jose Luis Astiazaranek**, Realeko presidentea izateko hautagaiak, bere programa aurkeztuko du eguenean, martxoak 1, Monterron jauregian, 19:00etan.

### BERGARA

> **Bergarako gaztetxean** *Chinatown* filma emango dute eguaztenean, 21:30ean.

> **Etxean ere irakurtzen eta idazten dugu** hitzaldia eguenean, martxoak 1, Ipintza institutuan, 18:30ean. Hizlaria Myriam Nemirovski psikologoa izango da. San Martin ikastetxeak antolatuta.

> **Ohiko tratamendu medikoeta**



ANTZERKIA

## TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunak *Parrandan* izenburuko ikuskizunarekin datozkigu oraingoan. Txiki- nen gozamenerako, hiru pailazoak abentura harrigarri eta barregarrietan murgilduko dira oraingoan, sorpresaz beteriko azken lan honetan. Hirukoteak jarraitzaile ugari ditu Bergaran eta inguruko herrietan eta ziurrenik domekan Udal Pilotalekua ikusle beteko da. Aratusteak alaitzeko asmoz etorriko dira Takolo, Pirritx eta Porrotx.

Noiz: Domeka, hilak 25. Tokia: Bergarako Udal Pilotalekuan. Ordua: 17:30. Prezioa: 300 Pta.



**LASAGABASTER**  
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE  
943 79 27 27 • 943 79 13 55





Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu,  
etor zaitez *Goienkariaren* ordezkaritzetako batera.

BERGARAN, *Berrigararen* egoitzan, Barrenkalea, 33

943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31

943 71 25 11

ARETXABALETAN, *Aretxagazetaren* egoitzan; Durana, 11

943 79 86 21

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11


945 44 50 22

ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salvador, 26

943 76 81 90

ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kalebarren, 1

943 76 60 62




**Goienkaria,**  
bailarako  
hedabide nagusia.

Astero  
20.000 etxetan.

Prezioa:  
10.000 pezeta.



**Arturo De La Mata Gallego** arreba **Miriam** eta ama **Lourdes**ekin, mondragoetarrak hirurak. Arturo otsailaren 13an jaio zen Arrasateko ospitalean. **Arturo** da aita, elgoibartarra.



**Josu Alegria Beitia** eta **Asier**, aita, eskoriatzarrak biak. **Josu** otsailaren 13an jaio zen Arrasateko ospitalean. **Marijo** da ama, eskoriatzarra.



**Unai Bastardo Gordexola** eskoriatzarra eta ama, **Ima**, mondragoetarra. Unai otsailaren 14an jaio zen. **Carlos** da aita, mondragoetarra.

## JAIOTAKOAK

**Oihane Lizarralde Ugalde**  
Antzuolan, otsailaren 4an.

**Joseba Santacristina Milan**  
Arrasaten, otsailaren 11n.

**Josu Alegria Beitia**  
Eskoriatzan, otsailaren 13an.


**Arturo De La Mata Gallego**  
Arrasaten, otsailaren 13an.

**Julen Nuñez Sanchez**  
Bergaran, otsailaren 14an.

**Unai Bastardo Gordejuela**  
Eskoriatzan, otsailaren 14an.

**Julen Arriolabengoa Beitia**  
Eskoriatzan, otsailaren 16an.

**Alaitz Barrutia Ezpeleta**  
Arrasaten, otsailaren 17an.



**Carlos Odriozola Zubia** eta ama, **Leonor**, oñatiarrak biak. **Carlos** otsailaren 16an jaio zen eta 2,030 kilo pisatu zuen. **Carlos Odriozola** da aita, oñatiarra.

## HILDAKOAK

**Javier Del Aguila Astoreka**  
Bergaran, otsailaren 19an,  
69 urte zituela.


**Julia Lizarralde Lizarralde**  
Antzuolan, otsailaren 20an,  
75 urte zituela.

**Vicenta Gonzalez Medrano**  
Arrasaten, otsailaren 20an,  
94 urte zituela.

**Ursula Brogel Anton**  
Arrasaten, otsailaren 21ean,  
87 urte zituela.

**Felipa Gonzalez Matas**  
Arrasaten, otsailaren 21ean,  
84 urte zituela.

**Juan Francisco Agirre Ondarra**  
Arrasaten, otsailaren 21ean,  
75 urte zituela.



**Alaitz Barrutia Ezpeleta** eta aita, **Garikoitz**, mondragoetarrak biak. Alaitz otsailaren 17an jaio zen eta 3,470 kilo pisatu zuen. **Zuriñe Ezpeleta** da ama, mondragoetarra.

## ESKER ONA

### Lucia Amozarrain Uribetxebarria

Arrasaten hil zen  
2001eko otsailaren 13an,  
95 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

**Zure lagun edo senitartekoren bat  
ezkontzekotan badago eta zoriondu  
nahi baduzu, hemen duzu aukera.  
Ekarri bikotearen argazki bat *Goien-*  
*kariako* erredakziora edo egoitza  
hauetara: **Aretxagazeta** eta **Arrasate**  
**Presseko** egoltzetara.**

# banoa

Trakking

Ledesma, 10 - bis, 2. - 48001 BILBO  
Tel.: 94 424 0011 - Fax: 94 423 2039  
e-mail: bio@banoa.com

**Mende** berriaren lehen urte honetan, **Alberto Iñurra-** **tegik** iaz anaia **Felixekin** hasi zuen egitasmoari helduko dio berriz.



**banoaren** eskutik, egitasmo honetan partaide izan zaitezten aukera eskaintzen dizugu. Bidaide nahi zaitugu, kultura, mendi, herri eta pertsona berriak ezagutzeko ahalegin honetan.

Aurtengo lehen egitasmoa Jordanian zehar egingo duten txangoa da.

Ekialde Hurbileko lurralde gorrixka horrek hiru altxor gordetzen ditu; **PETRA**, **ITSASO HILA** eta **WADI RUM**.

**EGUNAK:** apirilaren 12tik 22ra.  
**TALDEA:** 6 eta 12 bitartekoa + gidaria.

**PREZIOA:** 258.000 pta.

Eguraldia



ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

6,7°C

ILARGIAREN ALDIAK: OTSAILA



EGUZKIA: OTSAILAREN 25a



ZAPATUA, 24

Egun lainotsua izango dugu. Euri txikia egingo du. 1.000 metrotik gora, elurra. Temperaturak behera egingo du. Barrualdean izotza ere egin dezake. Haizea iparmende-baldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Zaparradak. Errioxa: Zaparradak. Pirinioak: Lainoak eta ostarteak.

DOMEKA, 25

Zeruak zeharo estalita egongo dira egun osoan. Euri txikia egingo du, eta 500 metrotik gora, baita elurra ere. Temperaturak behera egingo du. Haizeak iparraldetik joko du.

Nafarroako Erribera: Zaparradak. Errioxa: Zaparradak. Pirinioak: Lainoak eta ostarteak.

Urtegiak

URKULU Oraingo astean ere oso gutxi jaitsi da Urkuluko urtegiaren ur-maila; bere horretan dagoela esan daiteke. Joan zen astean %89,1 zen ur-maila; oraingo astean, ostera, %89,03.

Mezak

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan 08:30, 12:00. Zapatuetan 08:30, 12:00, 19:30. Domeka eta jaiegunetan 09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

Telefonoak

((112)) SOS DEIAK. Bergara 943 77 91 00, Elgeta 943 78 90 27, Eskoriatza 943 71 44 07, Leintz Gatzaga 943 71 47 46, Oñati 943 78 04 11, Hies Ekimena 943 79 26 99, Udaltzaingoak, Antzuola 943 76 62 46, Aramaio 945 44 50 16, Arrasate 943 79 14 39, Aretxabaleta 943 79 10 52, Bergara 943 77 91 06, Eskoriatza 943 71 44 07, Leintz Gatzaga 943 71 47 46, Oñati 943 78 04 11, OSASUNA / LARRIALDIAK, DYA (Orokorra) 943 46 46 22, DYA (Antzuola) 943 78 71 57, Gurutze Gorria 943 22 22 22, Suhiltzaileak 943 78 28 00, Ertzaintza, Arrasate 943 79 71 99, Bergara 943 76 53 40, Oñati 943 78 23 12, Osasun Etxeak, Arrasateko Ospitalea 943 03 53 00, Antzuola 943 76 62 46, Aramaio 945 44 50 33, Aretxabaleta 943 79 74 58, Debagoiena, Mankomunitatea 943 79 33 99, Abere hitlegia (Zubillaga) 943 78 21 93, Mendi nekazaritza elkarteak 943 76 25 47, Nekazaritza Ganbera 943 76 10 15, Kapiirixo 943 71 63 23, Zerga Bulegoa 943 76 58 63, Euskara Taldeak, Debagune 943 77 12 28, Arrasate / AED 943 77 12 28, Aretxabal. / Loramendi 943 77 09 70, Bergara / Jardun 943 76 08 19, Eskoriatza / Axtroki 943 71 54 34, Oñati / Laixan 943 71 63 11, Hondakindegia Alternatiboak, Arrasate 943 77 11 43, Bergara 945 76 44 42, Oñati 943 78 36 67, Kiroldegiak, Aramaio 945 44 53 35, Arrasate 943 77 16 77, Aretxabaleta 943 71 26 28, Bergara 943 76 56 41, Elgeta 943 76 82 84, Eskoriatza 943 71 53 28, Oñati 943 71 63 75, Kultura Etxeak, Antzuola 943 76 62 46, Arrasate 943 77 01 05, Aretxabaleta 943 71 10 27, Bergara 943 77 91 58, Eskoriatza 943 71 46 88, Leintz Gatzaga 943 71 47 46, Oñati 943 78 03 53, Udalak, Antzuola 943 76 62 46, Aramaio 945 44 50 16, Arrasate 943 79 10 00, Aretxabaleta 943 79 10 00, Bergara 943 77 91 00, Elgeta 943 76 80 22, Eskoriatza 943 71 44 07, Leintz Gatzaga 943 71 47 46, Oñati 943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA, LOTERIA PRIMITIBOA, ONCE. EGUAZTENA 21: 16 • 37 • 42, 44 • 46 • 47. MARTITZENA 20: 10 • 18 • 24, 27 • 35 • 44. ASTELEHENA 19: 07 • 11 • 19, 23 • 31 • 46. EGUBAKOITZA 16: 01 • 06 • 13, 14 • 31 • 34. DOMEKA 18: 06 • 13 • 16, 25 • 27 • 34. ZAPATUA 17: 04 • 31 • 34, 43 • 44 • 48. Saritzarra EGUENA 15: 10 • 14 • 19, 28 • 41 • 46. OSAGARRIA: 3, ITZULKETA: 3. OSAGARRIA: 39, ITZULKETA: 8. OSAGARRIA: 17, ITZULKETA: 4. OSAGARRIA: 40, ITZULKETA: 3. OSAGARRIA: 5, ITZULKETA: 7. OSAGARRIA: 24, ITZULKETA: 4. OSAGARRIA: 13, ITZULKETA: 8. ONCE: EGUAZTENA 21: 65.389, MARTITZENA 20: 76.738, ASTELEHENA 19: 64.735, DOMEKA 18: 10.558 (027 seriea), Kupoitzarra EGUBAKOITZA 16: 05.175 (180 seriea).

Erakunde hauen laguntza: Gipuzkoako Foru Aldundia, Europar Batasuna, Arrasateko Udala, Aramaioko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Leintz Gatzagako Udala, Antzuolako Udala.

Autobusak

PESA 902 10 12 10

Table with columns: BERGARA, ARRASATE, ESKOLA P., ARETXABALETA, ESKORIATZA. Rows show departure times for various routes.

Table with columns: GASTEIZ, ESKORIATZA, ARETXABALETA, ARRASATE, BERGARA. Rows show departure times for routes connecting these locations.

Table with columns: DONOSTIA, ANTZUOLA, BERGARA, ELGETA, BERGARA. Rows show departure times for routes between Donostia and other locations.

Table with columns: BILBO, ELGETA, BERGARA, ANTZUOLA, OÑATI, BERGARA. Rows show departure times for routes between Bilbao and other locations.

Table with columns: OÑATI, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, OÑATI. Rows show departure times for routes between Oñati and Bilbao.

Table with columns: BERGARA, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, BERGARA. Rows show departure times for routes between Bergara and Bilbao.

Table with columns: BERGARA, OÑATI, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA. Rows show departure times for routes between Bergara and other locations.

Table with columns: ESKORIATZA, ARETXABALETA, ARRASATE, OÑATI, BERGARA. Rows show departure times for routes between Eskoriatza and other locations.

Table with columns: BERGARA, ANTZUOLA, IRUÑEA, ANTZUOLA, BERGARA. Rows show departure times for routes between Bergara and Irulete.



## Umore giroan

Izaro Aperribai

### SAN JOSE

Egurrarekin San Joseren eskultura bat egin nahi daben tipo batek, enbor zati bat jirau dau eta arotzari eroan dotsa:

— Hemendik San Jose bat atera bihar dostazu.

Pare bat hillabatera bueltatu da berriz ere arotzegira, eta hantxe topau dau egur zati txiki-txiki bat.

— Nun dago, ba, nere enborra?

— Hori da!

— Eta San Jose?

— Ba, onddio ez dot topau, baiña hor barruan nunbaiten egon bihar da...

### ARNASESTUKA

Hau da mutiko bat, eta etxera ailllegatzen da arnasestuka. Eta aittak:

— Zer pasatzen jak, ba?

— Ba, bost duro aurrezarren, eskolatik antxintxika etorri naiz autobusan atzian.

— Baiña, hi tontua haiz, ala?

— Zer ba?

— Taxixan atzian etorri ezkeru hogege duro aurreratuoke heuke!

### ITSASUA

Joxemigel jun da etxera eta...

— Ama, ama, eskolan jo egin doste.

— Zergatik, ba?

— Itsasua gatzixa zergatik dan ez nekixelako.

— Hi haiz lelua, hori be eztakik, ala? Bakailauagai-txik, zegatik izango dok, ba!

## Hitz gurutzatuak

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

### Ezker eskuma

1/ Zerbait saltzen duena. 2/ Enarak. Argi, hitz elkarketan. 3/ Higatu, hondatu. Lehenengo. 4/ 501. Gipuzkoako ibaia. Lehen biak. 5/ ...danez, dirudenez. Noren atzikia. Burdinola. 6/ Labore-mota. Zango-atal. 7/ Fruta-mota. Bokal errepikatua. Bokala. 8/ Iritzi, uste izan. Zakur. 9/ Emakume izena. Landare-mota. 10/ Errepikatuz, gorotza. Musika mota. Gaixoa.

### Goitik behera

1/ Botikak. 2/ Pozgarria. 3/ Gehiegi. Jarraitu. 4/ Jaurtiketa. Sasoi. 5/ Afrikako estatua. Interjekzioa. 6/ Intsektu-mota. Herri hizkera, eta. 7/ Bokala. Tantalioa. Zu. Bokala. 8/ Bi eta bi. Duda partikula. Iridioa. 9/ Erbioa. garra. Izaniko. 10/ Atabal jolea.

## Bila-bila 7



## Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola




### Zein herritan unibertsitario gehien eta non gutxien?

**G**arai baten, dozena bat urterekin uzten zituzten ikasketak. Oinarri-oinarrizko eskolak jaso eta lanera, omen zen orduko legea. Gaur, ostera, asko eta asko dira erdi eta goi mailako ikasketak egiten dituztenak; baina, herritik herrira alde dezenteak daude. Asmatuko ote zenuke, 1986ko eroldaren arabera, zein herri ziren erdi eta goi mailako karreradunen proportzio altuena eta baxuena zituztenak?

- Altuena: Antzuola; baxuena: Oñati.
- Altuena: Arrasate; baxuena: Elgeta.
- Altuena: Oñati; baxuena: Antzuola.

**Erantzun zuzena:** Oñati: % 14,17; Arrasate: % 13,86; Elgeta: % 11,9; Antzuola: % 8,6.

### Soluzioak



**Ezker eskuma**  
1/ Saltzalea. 2/ Alaiak. Art. 3/ Narratza. 4/ Di. Oñati. Ab. 5/ Agi. En. Oñati. 6/ Gari. Aztal. 7/ Arana. Ee. A. 8/ Iru-ditu. Or. 9/ Ainara. Ihi. 10/ Ka. Re. Era. Er. Alai. Oñi. 10/ Atabalera.

## Horoskopoa

Berenize

### ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Espero zenituen gai legalen gaineko berri zoriontsuak izango dituzu. Hainbat proiektu esku artean.

### TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Zure desira eta exigentzia pertsonalak aurrera ateratzeko, segurtasun handia. Gainera, konfiantzaz gainezka zaude.

### GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Irtenbide malgu eta arinak behar dituzu, azkenaldian duzun gelditasuna saihesteko.

### CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Barruko poz eta bat-batekotasuna kanpora atera eta arinkeriak egin, neurrian. Lasaitu zaitetz, ekimenak egiteko gogoia piztu.

### LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Zure irudi pertsonala berbideratu eta berregituratu. Lanean ere mintza zaitetz, entzun zaitzaten.

### VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Heziketa pertsonalerako balio ez duten harremanak alde batera utzi. Hainbat erabaki hartu beharko dituzu, eta horien artean hautatu.

### LIBRA

irailak 23-urriak 22

Harremanetan zail egiten zaizu zure askatasun eta autonomia propioa topatzea. Horrela egongo zara merezi ez dizun arte?

### SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Atsedena, hau da, relax unea, aprobetxa ezazu errekuperatzeko. Unean unekoaz gozatu.

### SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Zure ideiak, gogoia eta jarrera biziberrituko dituzten egitasmo berriak izango dituzu esku artean. Saia zaitetz.

### CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Zure ingurukoek esaten dutenaz gehiegi arduratzen zara. Irizpide propioak ezarri.

### AQUARIUS


urtarrilak 21-otsailak 20

Proiektu positiboak aurrera ateratzeko nahia. Proiektuok garatzeko, esparru aproposak bilatu.

### PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Buruan darabilzun proiektua aurrera ateratzeko une aproposa, konfiantza eta ekimena puntu-puntu dituzu eta.



GIPUZKOAKO  
ASTROLOGI ELKARTEA

Bailarako  
*berriak,*  
bailarako  
*jendea,*  
bailarako  
*telebistan.*

**Goitb**  
Goiena Telebista

# Goiena Telebista

## Telebegi

### Diskrezioa

**T**elebista eta diskrezioa ez datoz bat. Telebistan, normalean, dena kontatzeko joera dago, eta detaile handienekin bada, askoz hobeto. Telebistari esker dakigu hau eta bestea norekin dabilen, adarrak jartzen dituen, norbait miresten duen... Era berean, aukera daukagu politikoei, famatuei edo pertsona anonimoei gai bati zein besteari buruz pentsatzen dutena jakiteko. Eta horrela beste mila gauza. Baina telebistan irudia garrantzitsua den bezala, batzuetan medio bihurria bilaka daiteke kamera bat zuri grabatzen dabilela ahazten bazaizu. Zorionez edo zoritxarrez, sarritan gertatzen da hori. Eta maiz gertatu izan dira, albiste bihurtzea politikoa edo pertsona publiko bat atzamarra sudurrean nola sartzen duen, edo nola ukitzen dituen, munduko lasaitasun handienarekin, gorputzeko beste alde ez hain fin batzuk.

Niri ez zait, gaur arte, horrelakorik gertatu. Gainera, ez naiz famatua, asko jota batzuetan ezaguna izan naiteke telebistan agertzearen. Eta horregatik, hain zuzen ere, astelehenean jende asko eta asko enteratu zen asteburuan lesionatu egin nintzela, eta nola izan zen kontua. Enteratu egin ziren *Sorginen Laratza*-ko ikusleak. Tontakeria bat bada ere, ez zitzaidan gustatu nire igeltsuaren zergatia kontatzea, eta orduan, konturatu nintzen komunikabideetan agertzeko inolako gogorik ez duen jendearen bizitza lau haizeetara zabaltzen dugunean nola sentitu behar den.




Itxaro Zubillaga

## Goienasport

Astelehenean, 21:05ean

### Musu berria 'Goienasport' en

**A**nartz Agirre bergararra gidatu eta aurkeztuko du aurrerantzean *Goienasport* kirol saioa. Anartz Euskal Telebistan ibili da orain arte, eta joan den astetik, GOITBko kirol erredaktore da. Kirol kontuekin jarraituz, datorren domekan Bergara eta Aurrera de Ondarroa taldeen arteko partidua eskainiko du GOITBk. 20:00etan izango da. Astelehenean, ostera, kirolen errepasoa, 21:05ean.



## Aurrez aurre

Eguaztenean, 21:05ean

### Josemari Velez de Mendizabal solaskide

**J**osemari Velez de Mendizabal idazle Mondragoetarra izango da datorren asteko *Aurrez aurre* saioko gonbidatua. Gaur egun, Josemari Velez de Mendizabal Eusko Ikaskuntza erakundeko kudeatzailea da. Idazle oparoa da Josemari: eleberriak, Mondragoeko historiaren gaineko liburuak... Kaleratu duen azkenak *Bizi izan juat du* izena. Karmele Zuazuabizkarrek elkarrizketatuko du Jose Mari *Aurrez aurre* saioan. Gogoratu, datorren eguaztenean, 21:05ean, gurean, GOITBn.

## Aratusteak 2001

Astelehena, 21:35ean

### Aratusteak 2001 GOITBn

**E**gun potoloa da datorren domeka Aretxabaletan. Egun horretan goi-goitik ospatzen dute atxabalarrak aratusteak. Aurtengoa, hantxe izango dira GOITBko kamerak. Egun osoan herriko giroa jaso eta astelehenean saio berezia emango du telebista. Kepa Errasti eta Iraia Aginagalde kazetari atxabalarrak aurkeztuko dute saio berezia. Astelehenean, 21:35ean emango da saio berezia, *Goienasport* kirol programaren ondoren.



## Asteko programazioa / Urtarrila: 16-22

EGUBAKOITZA 16	ZAPATUA 17	DOMEKA 18	ASTELEHENA 19	MARTITZENA 20	EGUAZTENA 21	EGUENA 22
13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Saioen errepikapena</b>	13:30 <b>Saioen errepikapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>
13:40 <b>Gatza eta berakatza</b>	<i>Gatza eta berakatza, Xeleberri, Mahai ingurua, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete</i>	<i>Gatza eta berakatza, Xeleberri, Mahai ingurua, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete</i>	13:40 <b>Gatza eta berakatza</b>	13:40 <b>Gatza eta berakatza</b>	13:40 <b>Gatza eta berakatza</b>	13:40 <b>Gatza eta berakatza</b>
13:50 <b>Sarrera doan</b> (errepikapena)			13:50 <b>Astebete eta Futbola</b> (errepikapena)	13:50 <b>Goienasport</b> (errepikapena)	13:50 <b>Ekilan</b> (errepikapena)	13:50 <b>Aurrez aurre</b> (errepikapena)
20:00/20:30: <b>Berriak</b>		20:30 <b>Futbola: Bergara-Aurrera de Ondarroa</b>	19:45 <b>Gatza eta berakatza</b>	19:45 <b>Gatza eta berakatza</b>	19:45 <b>Gatza eta berakatza</b>	19:45 <b>Gatza eta berakatza</b>
20:30 <b>Non-zer</b>			20:00 <b>Berriak</b>	20:00 <b>Berriak</b>	20:00 <b>Berriak</b>	20:00 <b>Berriak</b>
20:35 <b>Berriak</b>			20:30 <b>Non-zer</b>	20:30 <b>Non-zer</b>	20:30 <b>Non-zer</b>	20:30 <b>Non-zer</b>
21:05 <b>Astebete</b>			20:35 <b>Berriak</b>	20:35 <b>Berriak</b>	20:35 <b>Berriak</b>	20:35 <b>Berriak</b>
21:30 <b>Soinuz blai</b>			21:05 <b>Goienasport</b>	21:05 <b>Ekilan</b>	21:05 <b>Aurrez aurre</b>	21:05 <b>Sarrera doan</b>
			21:35 <b>Aratusteak</b>			21:30 <b>Soinuz blai</b>

## Barruko kontuak

### DOMEKAN, FUTBOLA

**O**raingo domekan ere futbola egongo da ikusgai GOITBn. Bergara eta Aurrera de Ondarroa taldeen arteko partidua eskainiko du GOITBk. Duda barik, partidua gaiztoa jokatu behar izango dute bergarrek, Ondarroa senda eta indartsu dabil-eta hirugarren mailan. GOITBko kamerak partida osoa jasoko dute, eta ohi bezala, domeka arratsaldean eman, 20:00etan. Astelehenean ere errepikatuko dute emanaldia, 14:00etan.

### MUSIKA 'SARRERA DOAN' EN

**J**oan den asteko *Sarrera Doan* saioan Mikel Urdangarin izan genuen gonbidatu. Datorren asteko programan, ostera, RIP taldeak Bilboko Kafe Antzokian emandako kontzertuaren berri zabala emango dute *Sarrera doan*-en. Hantxe izan ziren GOITBko kamerak. Kontzertuaren laburpena emango dute saioan. Betiko moduan, zinemak ere izango du lekua *Sarrera doan*-en. Azken estreinaldiak eta bailarako zinema emanaldiak, eguenero, 21:05ean.



翻訳・通訳

Itzulpenak  
Translations

Übersetzungen  
Traduction

Badakitzu zer jarten dauen hor?  
Hortarako gaz.

Araba Etorbidea 3- 2. Eskatu eraikina / P.O Box 273 - 20500 Arrasate  
Tel.: 943 79 2575 / Faxa: 973 71 2125  
E-mail: info@goihata.com http://www.goihata.com

## Atzeskua

MAIDER OSA

### Rosi Otadui/Fisioterapeuta

**Z**ertaz mozorrotuko zara aurten?

— Domadorez. Baina, ez Angel Cristo bezala, baizik eta oso fin. Zilarrezko kapela altuarekin, praka zuri luzeekin... "Bolin", txakur handiena, tigre jantziko dut. "Pekin" txikia, ostera, behi. Uztaiak ere eramango ditut, salto egin dezaten. Egunero entseatzeko dugu.

— Zelan bururatu zaizu domadorez mozorrotzea?

— Beste behin ere mozorrotu nintzen; orduan, leotardoak, poloa, urrezko kuleroak eta kapa urdin distiratsua jantzi nituen. Txakurra tigre jantzi nuen orduko hartan, baina Portalaira iritsi orduko, mozorroa apurtuta zuen. Hortaz, etxera joan eta mozorroa aldatu behar izan nuen. Armadura bat jantzita irten nitzen kalera, baina txiki samar gelditzen zitzaidan.

— Aratusteetan, martitzenean bakarrik irteten zara?

— Birritan-edo irten naiz Aretxabaletan, baina nahiago dut martitzenean bakarrik irtetea. Tolosako aratusteetan, esaterako, ez naiz sekula egon.

— Noiztik mozorrotzen zara aratuste egunean?

— Betidanik izan naiz jaialdizalea. Betidanik gustatu izan zaizkit folklorea eta jaia. Dena dela, duela 25 bat urte hasi nintzen mozorrotzen, lagun taldearekin. Tuna izanez hasi ginen.

— Zein da jantzi duzun mozorrorik politena?

— Urte bateko domadore kaparekin Maritxu Kajoi egunerako gona egin nuen. Hortaz, trapu guztiak aprobetxatzen ditut.

— SUDC elkarteak antolatzen zituen jaialdietan ere ikusten zintugun.

— 25 lagun ibiltzen baginen lanean, nik uste dut hortik 20 prest egongo

ginatekeela berriro jaialdia-ekin hasteko. Batzuk, ordea, nekatu egin ziren. Kritika suntsitzaile asko ere bazen, eta lagundu baino, kalte egiten zuten.

— Zure bezeroak sendatzeko urrezko araua?

— Poza. Hori da gehien igartzen duten sentsazioa. Guztiok ditugu minak. Ni, ordea, minak isilarazten saiatzen naiz. Ez dago minik. Egin dezagun guztiok irribarre.

— Zer da bizitzan gehien maite duzuna?

— Nik ohitura sendoak ditut. Familia jartzen dut guztiaren aurretik, eta maite ditudan lagunak familiako kide bezala hartzen ditut.

— Zure ametsik errepikatuenak?

— Zoriontasuna lortzea. Ez dakit zelan: barre egitearen ondorioz, on egitearen ondorioz... baina, jendeak maite nazala nahiko nukeen bezala.



“Tolosako aratusteetan ez naiz sekula egon”

“SUDC elkarteak antolatzen zuen aratusteetako *play-back* jaialdian 25 lagun ibiltzen baginen, horietatik 20 bat prest egongo ginateke berriro hasteko”

“Poza da bezeroak sendatzeko erabiltzen dudana urrezko araua”

► Arrasatearra / 50 urte / Aratustezalea

## AIPAGARRI



OSKAR EPELDE

Mondragoe / Kazetaria

Oskar Epeldek hainbat erreportaje egin ditu telebistarako. Azkena, heriotza zigorren gainekoa, Estatu Batuetan, Urtain boxeolari ospetsua zenaren loba Pablo Ibarren gainekoa. Pablo Ibarri hiru lagun hiltzea leporatu eta heriotza zigorra ezarri zioten joan den udan. Besteak beste, Pablo Ibarren adierazpenak jaso ditu Oskar Epeldek, gaur ETBk eskainiko duen erreportajearen.



JESUS MARI LAZKANO

Bergara / Pintorea

ARCO ferian izan da, Madri-aleko Antonio Machon galeriarekin (Saura, Bordillo...) Arrakasta handia izan du, gainera, eroandako guztia (9 margolan) eskegi eta gehiena saldu du eta. Pintura lan bat Washington hiriko Munduko Bankuari saldu dio. Bestalde, Erroman eta Moneterreyn erakusteko eskaintzak jaso ditu.

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?

EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizuneko pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe? Hauek dira, Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express taldean sartzeraz bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: Euro Express.

Eraitzak bidean daude.

GUIPUZCOANA  
EURO EXPRESS

Guipuzcoana haren dazki.

www.guipuzcoana.com